


# DON♥STIA



HAUTESKUNDE-PROGRAMA **2023-2027**



**EUROPAN PARERIK  
IZANGO EZ DUEN  
DONOSTIA NAHI DUGU;  
BIZITZEKO, LAN EGITEKO  
ETA ELKARREKIN  
GOZATZEKO HIRIA**

**DON**  **STIA**  
2023-2027 HAUTESKUNDE-PROGRAMA









# AURKIBIDEA

---

• Eneko Goia Laso, Donostiako alkate eta alkate-gaiaren agurra	7
• EAJ-PNVren programa donostiako hiriaren gobernantza zuzenerako	10
• Esker onez	12
<b>1. Donostia, zientziaren eta ezagutzaren hiria, talentua, berrikuntza eta aurrerapen sozial eta ekonomikoa sortzen dituen</b>	<b>15</b>
o <b>Aurrerapena eta ongizatea</b>	<b>16</b>
o Ikerkuntza, ezagutza eta berrikuntza jarduerak	17
o Enplegua eta oparotasuna sortzen duten jarduera produktiboak	17
o Talentua sortzeko, erakartzeko eta finkatzeko jarduerak	18
<b>2. Kultur sorkuntzak eta ekoizpenek, gastronomiak eta kirol-jarduerak bereizten dute Donostia nazioartean</b>	<b>21</b>
o <b>Erreferentziazko hiria</b>	<b>22</b>
o Donostia erreferente da artean, kulturean, gastronomian eta kirolean	23
o Erreferentziazko hiria nazioartean sektore kongresuetan, kultura ekitaldietan eta turismo sustapenean	25
o Nazioartean erreferentziazko hiria duen kalitateagatik kirol eta osasun arloetan	28
<b>3. Donostia, hiri segurua, zaindua eta atsegina, bizi-proiektu libre eta solidarioak ahalbidetzen eta sustatzen dituen</b>	<b>31</b>
o <b>Garapen jasangarria</b>	<b>32</b>
o Etxebizitzaren eskaria eta eskaintza kudeatzeko politika aktiboak eta erabilera publikorako gune berriak taxutzea	33
o Bizikidetzarako, inklusioko eta elkartasuneko gizarte politikak	35
o Bizitza baterako prebentziozko osasun eta zaintza politikak	37
o Donostiako familien eta gazteen bizi-kalitatea hobetzeko politikak	38
o Herritarren segurtasunerako eta bizikidetzaren zibikorako prebentzio politikak	39
o Babes zibileko eta larrialdien kudeaketako prebentzio politikak	43
<b>4. Donostia, hiri garapena eta natura ingurunea eta ingurumenaren jasangarritasiuna errespetatzen dituen hiria</b>	<b>45</b>
o <b>Etorkizun partekatua</b>	<b>46</b>
o Hirigintza proiektu berriak eta hiri mugikortasuneko eta hiriarteko mugikortasuneko premia eta erabilera berriak	47
o Bizikletaz mugitzearen kultura eta bidegorri sarea	49
o Oinezkoentzako hiri-gune berriak	50
o Etengabeko klima aldaketak gure inguruan eragindako ondorioei	50
o Hiri ondarea eta paisaia eta natura ingurunea kontserbatzea	51

<b>5. Donostia, hiri adimentsua, digitala, baliabide publikoak eta komunitarioak efikaziaz eta efizientziaz kudetazen dituen.</b>	<b>55</b>
o <b>Udaletxe efizientea</b>	<b>56</b>
o Zerbitzu eta aurrekontu publikoen kudeaketa aurreratua, egunerokotasunean herritarren bizitza errazten duten baliabideen efikazia eta efizientzia hobetzeko	57
o Herritarrek hiriko ondare, kultura eta prestakuntza ondasunak ezagutzea eta haietaz gozatzea errazten duten baliabide publikoen kudeaketa aurreratua	59
o Hiriaren gobernu ona, herritarren parte-hartzea eta pertsonen integrazioa erraztuko dituen udal baliabideen kudeaketa aurreratua	59
<b>6. Donostia, euskaraz naturaltasunez gero eta persona gehiago bizi diren pertsonen hiria</b>	<b>63</b>
o <b>Euskararen hiria</b>	<b>64</b>
o Euskararen belaunaldien arteko transmisioa eta erabilera komunitarioa sustatzea	65
o Erakundeen arteko lankidetzeta eta aliantza estrategikoak	65
o Paisaia linguistikoa, bisuala, soinuduna eta sentimentala	66



## **ENEKO GOIA LASO, DONOSTIAKO ALKATEAREN ETA ALKATE-GAIAREN AGURRA**

---

*Beste behin ere, pauso sendo bat eman eta aurrera egiteko garaia da, Donostia bai baitabil, eta hobekuntza bidean gainera.*

*Indarberrituta atera gara pandemia mingarri baten zailtasunetatik. Osasun-krisiaren zailtasun eta ezusteko asko gainditzeko gai izan gara eta, honenbestez, atzean uzten joango gara COVID19aren hiru urteko kutsaldiak eragin digun min guztia.*

*Orain errealismoz eta elkartasunez ari gara aurre egiten krisi ekonomikoaren ondorioei, ezegonkortasun geopolitikoari eta Ukrainako gerraren ondoriozko prezioen igoerari. Eta, zailtasunak zailtasun, Donostiak aurrera egiten jarraitzen du egunero. Aurrera doa eta urrats sendoz eraikitzen ari da bere etorkizuna.*

*Guztion ahaleginari esker, hiri kementsu bat daukagu. Erresilientea, hori da modako hitza. Hiri karismatiko honek beti jakin izan du ustekaberik latzenei aurre egiten eta une zailenetatik indartuta ateratzen, eta bizi dugun hau, zalantzarik gabe, halakoa da.*

*Gaur, hiriaren betiko eta berezko kemen horrek baikortasunera eta ilusio garai berri bati elkarrekin ekitera gonbidatzen gaitu. Ziurgabetasunen aurrean, ekonomiaren, ingurumenaren eta belaunaldi-aldaketaren erronka berrien aurrean, elkartasunezko hiri osasungarri eta jasangarri batekin amets egiteko aukeran gaude berriro. Hiri atsegin eta zirrargarri baten ametsa da. Atsegina norbera bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko; egokia lan egiteko eta zirrargarra hiriaz gozatzeko orduan.*

*Aurrera egiteko ordua da. Pauso irmoa emateko ordua, aurrera egiten jarrai dezagun. Donostiarron izaeraren harrotasunari bultzada berri, sendo eta pizgarria emateko garaia da, auzoz auzo. Bisitatzen gaituzten guztiei erakutsi nahi diegun harrotasuna. Gure hiria ezagutu eta gure adeitasunaz eta abegikortasunaz gozatzera hurbiltzen diren guztiei sentiarazi nahi dieguna.*

*Donostiarron harrotasun hori, gauza guztien ginetik, eta batez ere, bizitza pertsonala eta familia-bizitza, garapen profesionala eta gizarte-bizimoldea, proiektu ilusionagarri eta iraunkor modura hemen planifikatu eta garatu nahi duten guztiekin partekatu nahi dugu.*

*Familia, bizilagunak, auzoa, gure gizarte-bizitzarako gaitasuna, gure komunitate-kultura eta belaunaldien arteko elkartasuna, oinarrizko lanabesak dira aurrera egiteko.*

*Eskubideetan eta betebeharretan aurrera egiteko, baina, batez ere, elkarrekin aurrera egiteko, belaunaldi berrientzat etorkizuna askatasunean eraikitzeke aukerak sortuz. Askatasunean eta elkartasunean.*

*Gure hirian lan egin eta bizitzera, belaunaldien arteko halabeharrezko erreleboa osatzen laguntzera eta behar dugun aurrerapen-indarra sendotzera datozen gizon eta emakumeek ere bertan errotzeko eta bizimodu duina izateko benetako aukerak izan ditzaten lan egin behar dugu.*

*Gure nagusiek ere, lan-bizitzatik ondo merezitako erretiro aldira igarota, bizitza betea garatzeko aukerak izan ditzaten elkartasunean eta, egoerak hala eskatzen dien neurrian, beharko dituzten zerbitzuak eta zaintzak planifikatzeko aukera izan dezaten.*

*Donostiarrek, belaunaldiz-belaunaldi, gero eta hiri hobea izateko ahaleginez eta ilusioz egindakoaz disfrutatu eta orain arte lortutakoari aurrerabidea emateko garaia da.*

Aurrera egiten jarraitu behar dugu gure hiriaren etorkizuna eraiki, sendotu eta zaintzeko, auzoz auzo. Milaka eta milaka urteko prozesu geologiko miresgarrian Kantauri itsasora irekitako padura honetako hondar-lur hauen gainean. Orain, prozesu naturalen berezko aldaketei, gizakion jarduerak hemen eta munduan eragindako aldaketak gehitu behar dizkiegu. Ezin dugu albora begiratu. Garaia da, guretzat ere, klima-aldaketaren ondorioak modu solidarioan arintzen lagunduko duten neurriak aurreikusi eta aplikatzen joatekoa.

*Donostia eta bere inguru guztia paraje natural miresgarria dira.*

*Igeldotik Uliara olatu artean itsas sakonera jaisten diren itsaslabar malkartsuak, gure hondartzetako harearen kalitatea, Urumea ibaiaren itsasoratze pausatua, hiri inguruko muino, zelai, laborantza-lur eta basoek osatzen duten paisaia, bertan sustraitzeko eta bizirauteko izan dugun borondate atabikoaren lekuko dira.*

*Gure paisaia, hirigintza, zientziaren, teknologiaren, aurrerapenaren eta kulturaren alde egiten ari garen apustu irmoa, gure gastronomia eta tradizioak, mirestuak dira Euskadin eta munduan. Azken finean, mirestuak gara gure idiosinkrasiagatik, gure izateko moduagatik eta gure bizitza-, bizikidetz- eta ongizate-ereduagatik.*

*Horregatik guztiagatik, 2023-2027 legegintzaldi berrirako udal plan eta ekintzen laburpena jasotzen duen dokumentu honetan, hirigintza eta hiritartasuna ulertzeko eta egiteko moduari buruzko ibilbide-orri ilusionagarri bat proposatzen dizuegu, zuekin guztiokin partekatu nahi duguna.*

**Konpromisoa hartzen dut pertsonalki, eta alderdi gisa ere konpromisoa hartzen dugu**, gure hiriaren gobernagarritasunaren alde lan egitekoa. Guztion onginahiren aldeko kudeaketa politikoan daukagun ehun urtetik gorako esperientziatik abiatuta, lankidetzan, akordioan eta egonkortasunean oinarritutako auzo-lanean jarraitzeko konpromisoa:

- **Donostia hiri ekintzailea eta kementsua izan dadin, talentua, berrikuntza eta aurrerapen ekonomikoa sortzeko orduan:**
  - Gure gazteen hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin zerikusia duen guztian.
  - Ikerketa zientifikoaren aurrerapenetan eta gure industria- eta ekoizpen-sarerako transferentzia teknologikoan, eta ezagutzaren kudeaketa aurreratuenean.
  - Ekonomia-, kultura- eta gizarte-aurrerapenerako lankidetz- publiko/pribatuan eta erakundeen eta metropoliko herrien arteko lankidetzan.
- **Donostiak Europan erreferente izaten jarrai dezan:**
  - Bere tradizioen nortasunagatik, gastronomia-aberastasunagatik eta gizarte-bizikidetz- plural, inklusibo eta berdintasunezkoagatik.
  - Gure kultura sorkuntzaren, ekoizpenaren eta zabalkundearen ñabardura ugariengatik.
  - Gaur egun, eta etorkizunari begira ere, herritar guztien bizi-kalitatea eta ongizatea bermatzen duten gizarte-politika berritzaile, inklusibo eta solidarioengatik.
- **Gure hirian euskararekin eta euskaraz naturaltasunez bizi diren pertsonak gero eta gehiago izan daitezen:**
  - Belaunaldien arteko transmisioa bermatzen duen komunitate euskaldun batean.

- *Euskararen ikaskuntza errazteko eta erabilera soziala zabaltzeko ahalegin komunitarioan, ezberdinen arteko harreman-aberastasuna eta bizikidetzazainduz.*
  - *Euskararen etorkizuna kultur mestizaje berritzaile eta aberasgarri baten arragoan bermatuko duen ahalegin kolektibo, instituzional eta sozialean.*
- **Erakundeen arteko lankidetzan, metropoli-lankidetzan eta herritarren erantzunkidetasunean oinarritutako hiri-bizitza eraiki dezagun:**
    - *Hiri segurua, zaindua, garbia eta irisgarria.*
    - *Belaunaldi berriei bizitza-proiektu libre eta solidarioak garatzea ahalbidetuko dien hiria.*
    - *Adinekoen arduratzen den eta belaunaldien arteko elkartasuna errazten duen hiria.*
    - *Ondo konektatua eta abegikorra gu ezagutzea erabaki dutenekiko: eguneko bisitariei, turista programatuei, jaialdietara, gizarte- eta kirol-ekitaldietara bertaratutakoei, eta gure hondartzez, itsasoaz eta gure ingurune naturalaz gozatzea erabakitzen dutenei irekia.*
  - **Auzoz-auzo, hiri-garapena, ondare-aberastasuna, natura-ingurunea eta ingurumenaren iraunkortasuna errespetatzen dituen hiria.**
  - **Hiri digitala, adimentsua, kudeaketa aurreratuko modu berriak erabiltzeko gai izango dena, baliabide publikoak eta komunitarioak era eraginkorrean eta efizientean kudeatu eta baliatzeko, aurrerapen ekonomikoari eta ondasun komunari dagokion guztian.**

*Udal legegintzaldi berri baten atea irekiko dituzten hauteskunde hauetan, beste behin ere, udalaren kudeaketaren buru izateko konpromisoa hartzen dut, gure hiria Europan erreferente izan dadin, bakean bizitzeko, etorkizunaren alde lan egiteko eta bizitza gozatzen jakiteko aukerak sortuz.*

*Askotan adierazi dut. Helburu bat dugu: **guztion artean egin dezagun Donostia Europako hiririk onena bizitzeko, elkarrekin bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko.***

**Eneko Goia Laso**  
Donostiako alkatea  
EAJ-PNVren alkategaia

# **EAJ-PNV REN PROGRAMA DONOSTIAKO HIRIAREN GOBERNANTZA ZUZENERAKO**

---

2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskunde hauetarako, EAJ-PNVren ordezkariok aurkezten dugun hauteskunde programa honek, geure-geurea dugun zerbitzu publikoaren espiritua adeirazten du, hau da, gobernu talde bezala herritarren alde lan egiteko hartzen dugun konpromisioa.

Programaren helburua da 2023-2027 legegintzaldi honetatik aurrera izango ditugun erronka nagusiak eta jarduera estrategikoaren ildo agerikoenak bildu eta ezagutaraztea.

Hiri aurreratua eraikitzen eta sendotzen jarraitzeko jarduerak eta erronkak jasotzen ditu. Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunean, elkarrekin bizi, lan egin eta disfrutatu ahal izateko, bidezkoa, solidarioa eta arduratsua izango den hiri-bizitza ahalbidetzeko borondatea eta kemena nabarmentzen ditu.

Horretarako, **EAJ-PNVren ordezkari eta Donostiako udal gobernurako hautagai bezala, honako hau adierazten dugu:**

- Gure konpromiso pertsonala eta taldekoa hiriarekin eta bertako jendearekin, auzoz auzo, herritarrekiko lankidetzan eta elkarlanean, Donostiak gure etxe komun izaten jarrai dezan eta donostiar izateraren harrotasuna biziberritzeko.
- Dedikazio eta esfortzu-, eraginkortasun eta efizientzia-, komunikazio eta gardentasun-konpromiso zintzo eta kementsua hiria gobernatzeko moduan, bere ondarea, baliabide ekonomikoak eta jendearen konfiantza administratzeko eran.
- Herritarren entzute aktiboa eta parte-hartze zuzena erraztuko dituzten udal-gobernantzako mekanismo guztiak irekita mantentzeko konpromisioa hartzen dugu, betiere guztion ongizatea eta komunitatearen bizi-kalitatea hobetzen lan egiteko.
- EAJ-PNVren konpromiso politikoa herritar guztiarekin partekatu nahi dugu, Donostiak, ahalik eta adostasun handienarekin eta behar duen egonkortasun politikoarekin, aurrera egin dezan, hiri atsegina, zaindu, abegikor, solidario eta kolaboratibo bezala.
- Iritsi da garaia pandemiaren hiru urte luze hauetan osasun-arretaren, administrazio-funtzionamenduaren eta eragin ekonomikoaren arloko desorekak itxi eta gainditzeko, eta gizarte gisa aurrera egiten jarraitzeko oinarriak sendotzeko.
- Ilusio partekatuak berreskuratzeko konpromisioa hartzen dugu.
- Era berean, egungo egoera sozioekonomikoa gainditzeko ahaleginak bateratu, kontzentratu eta areagotzeko konpromisioa berresten dugu. Horrela bakarrik egin ahal izango diegu aurre, errealismoz eta ilusioz, hiriaren oraingo eta etorkizuneko erronkei, biztanleriaren hazkunderako, aurrerapen ekonomikorako, herritarren bizikidetzarako eta gizarte-ongizaterako.
- Genero-berdintasunaren, justiziaren eta gizarte inklusioaren aldeko udal-politikak garatzeko konpromisioa, belaunaldien arteko lankidetzaren eta memoria kolektiboa berreskuratzeko. Gizarte-aniztasunaren errespetua, pertsona kalteberenekiko elkartasuna eta giza-eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren hezkuntza etikoaren bultzatzeko konpromisioa.

- Halaber, konpromisoa hartzen dugu Europako eta Euskadiko udalgintzarekin elkarlanean jarraitzekoa, EUDEL-en bitartez, eta, osagarri gisa, metropoliko lan-eremua sustatzekoa, udal-erri mugakideetako arduradun instituzional nagusiak bilduko dituen (Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Urnieta, Astigarraga, Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzun), Iparraldearekin ditugun loturak ere sendotuz. Elkarrekin ekin, adostu eta aurrera egin ahal izango dugu, interes komuneko ikuspegi batekin, jarduera-eremu osagarrietan hazkunde-, iraunkortasun- eta elkartasun-arazoei erantzuteko orduan. Hori guztia Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin etengabeko lankidetzan estuan.
- Ildo beretik, euskararen normalizazio sozialaren alde lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzeko konpromiso irmoa hartzen dugu. Euskal Herriko hiririk euskaldunena izaten jarraitu nahi dugu, *Euskararen Hiria*, gure komunitatean bizi, lan egin eta hiri-bizitzaz gozatzen duten herritarren artean gero eta gehiago izan daitezen euskara natural sentitu, ezagutu eta erabiltzen dutenak.

## **EAJ-PNV**

**2023ko udal hauteskundeetarako  
Donostiako hautagaitza**

## ESKER ONEZ

---

Dokumentu hau EAJ-PNVren egungo gobernu-taldea osatzen duten pertsona guztiguztien emaitza da eta, Eneko Goia Laso buru dutela, 2023-2027 udal-legegintzaldira aurkezten diren gizon-emakumeen elkarlanaren eta eskuzabaltasunaren ondorio.

Azken hilabeteotan modu askotara, norberaren interesak albo batera utzi eta, eskuzabal, auzo-lanean jardun nahi izan duten herritarren laguntza paregabea izan dugu. Geuregan hartzen dugun erantzunkizunetik, bereziki eskertu nahi ditugu:

- COVID19 pandemiaren ondoren hiriaren egoerari buruzko eztabaida-topaketetan, norberaren interesen gaintetik, iritziak eta proposamenak eman dituzten pertsonak; 60tik gora izan dira guztira.
- Eneko Goia Lasorekin eta udal gobernuko beste kide batzuekin hiriko leku ezberdinetan egindako 10 topaketetan, kezka partekatzen eta etorkizuneko eronkei buruz eztabaidatzen jardun duten 120 lagunak.
- 200 pertsonatik gora izan dira aurren ere, auzoz auzo, *Zuk egiten duzu Donostia, baita zure auzoa ere* programako zortzi bileretan parte hartu duten hiritarrak. 2023ko udal-aurrekontuan aurreikusitako inbertsio-partidak eztabaidatu, erabaki eta lehenesteko prozesua ireki dutenak.
- 2019-2023 legegintzaldi konplexu honetan, udal-kudeaketako arduradun politikoek eta teknikoek hainbat sektoretako erakunde eta ordezkariekin izandako lan-bileretan parte hartu duten pertsonak ere eskertzen ditugu.
- Nola ez, baita hiriko bost Batzokietatik, udal bizitzaren egunerokotasunean komunitate-bizitzaz dituzten ardura eta gogoetak jasoz, EAJ-PNVko afiliatuek egin dituzten ekarpen estimagarriak ere.
- 100.000tik gora herritarrek, aurrez-aurre, telefonoz edo telematikoki (donostia.eus) helarazi izan dituzten eskaera, ohar eta iradokizunak: hiriaren egoerari, udal-izapideei, udalaren jarduera jakin batzuen inguruan sortutako desadostasunei, hirigintza-jarduera batzuek sortu ohi dituzten eragozpenei eta, orohar, gu-guztion ongizatearekin zerikusia duten gaiei buruzkoak.
- Posta elektronikoz, WhatsApp-ez edo sare sozialen bidez galderak, kezka eta iradokizunak bidali dituzten pertsona eta erakunde guztiak.
- Auzo bakoitzeko gizarte-esparru hurbilean pertsona jakinei eguneroko bizimoduan sortu ohi zaizkien arazoak atzeman, aztertu eta konpontzeko borondatearekin, partaidetza- eta komunitate-dinamiketan parte hartu ohi duten eragile publiko eta pribatuak, elkarteak eta erakundeak.

**Gure eskerrik beroenak den-denei.**

**2023-2027 LEGEGINTZALDIRAKO  
JARDUERA, GARAPEN ETA  
ONGIZATE ARLO NAGUSIAK**





**1. DONOSTIA, ZIENTZIAREN ETA EZAGUTZAREN HIRIA,  
TALENTUA, BERRIKUNTZA ETA AURRERAPEN SOZIALA ETA  
EKONOMIKOA SORTZEN DITUENA**

## GARAPENA ETA ONGIZATEA

*Ekintzailletza bultzatu, talentua sustatu eta enplegua sortzen dituzten ikerkuntza, berrikuntza eta aurrerapenerako ekimenak eta proiektuak errealitate finkatuak dira dagoeneko gure hirian. Behin betiko, berrikuntzan inbertitzen duen industria sendo baten aldeko apustua egin nahi dugu, ekonomia aurreratu eta indartsu bat lortzeko.*

*Langabezi tasa, 2023ko otsaileko datuen arabera, % 7,5ekoa da. Euskadiko eta Estatuko batez besteko tasak baino txikiagoa. Hil bereko datuak kontuan hartuta, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua % 1,97 igo da aurreko urtearekin alderatuz.*

*EAEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 10 baino gehiago igo da per capita azken zortzi urteotan, azken hilabeteetako zailtasunak zailtasun: osasun krisi luzea, Ukrainako gerra eta mundu mailako gorabehera ekonomikoak. Igoera horrek esan nahi du batez besteko errenta osoak 18 puntu gorago egon direla gure hirian Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoarekin alderatuz.*

*Gure Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 3,6a I+G+b arlora bideratuta dago, hau da, ikerkuntzako proiektu lehiakorrek martxan jartzera, talentu gaztea kontratatu eta aberastasuna sortzen duten proiektuak alegia. Espainiako %1,4aren oso gainetik, eta baita Europar Batasunak aholkatzen duen % 2aren oso gainetik ere. Beraz, hiri bezala inbertsio esfortzu bat egiten ari gara zientzian eta ezagutzan eta, horri esker, Europako gizarte aurreratuenean pare gaude.*

*Gaur egun, 6.000 pertsona baino gehiagok egiten du lan ikerkuntza institutu eta zentroetan, teknologi enpresetan, start-up berritzaileetan eta ezagutza kudeatzen duten unibertsitate entitateetan.*

*Datozen lau urteetan ekintzailletza indartsu baterako inbertsio tasa handiak izaten eta bultzatzen laguntzen jarraituko dugu, 7.000 pertsonako kopurua gainditzeko asmoz. Hala, horien talentua eta know-howa izango ditugu garatzeko bidean dauden jarduera produktiboetan, hain zuzen ere zientzian eta ikerkuntzan erreferenteak, aurrerapenaren motor eta aberastasunaren sortzaile diren jardueretan.*

*EAJren alkategai eta gobernu talde moduan, hitz ematen dugu Udaletik lan egingo dugula gure hiria aurrerapenaren, berrikuntzaren eta bizi kalitatearen hobekuntzaren tokiko eta nazioarteko erreferente izaten jarrai dezan, lehenaz gainera. Erreferentea zientzian eta ezagutzan, eragin soziala helburu bezala hartuta. Horretarako, berrikuntza inklusiboa eta jasangarria lehenetsiko dira, elkarlanerako elkarteak bultzatuko dira, gizarte erantzukizuna sustatuko da eta publikoa berrikuntzako ekimenetan kontuan hartuko da; hala, berrikuntza eta garapena bultzatuko dira eta, aldi berean, gizarte eta ingurumen arloetako desfizioei helduko zaie eta ekitate soziala sustatuko da.*

*Gure helburua da inbertsiorako eta berrikuntzarako eredu erakargarria izatea, aintzat hartua izango dena eta ikasteko balioko duena, gai baikara transferentzia teknologiko produktiboko ekimenak eta proiektuak sortzeko eta ahalbidetzeko, ikerkuntzarako talentua erakartzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko.*

*Lan hori guztia burutzeko, beste erakundeekin elkarlanean ariko gara, hala nola Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, inguruko unibertsitate guztiekin, berrikuntza teknologikoa eta zientifikoa ahalbidetzen duten ikerkuntzako zentroekin eta institutuekin eta enpresa eta ekimen pribatuekin, horiek baitira hiriarri enplegua, aurrerapena eta aberastasuna ekartzen dizkietenak. Euskal unibertsitate sistemarekin batera jardutea funtsezkoa da, ezagutzaren benetako ekosistema bat sortzeko, sarean lan egiteko gai eta interes orokorraren mesederako izango den ekosistema.*

## IKERKUNTZA, EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA JARDUERAK

- **Donostia, gizarte eragina duten zientziaren eta ezagutzaren hiria.**
  - Ahalegin irmo bat Udaletik balio katea lideratzeko eta sendotzeko; hezkuntza, ikerkuntza, ezagutza, berrikuntza eta transferentzia teknologikoa industria sektorearekin lotzen dituen balio katea alegia, horrela sustatuko baitira talentua, kalitatezko enplegua, bizi kalitatea eta gizarte ongizatea.
  - Ahalegin hori unibertsitateekin, ikerkuntza laborategiekin, zentro teknologikoekin eta ekimenak garatzeko guneekin batera egingo da garatzen ari diren arloetan, hala nola bio-zientzietan, elektromugikortasunean, zibersegurtasunean, konputazio kuantikoan eta adimen artifizialean.
  - Ahalegin hori erakundeen arteko lankidetzan oinarrituko da, finantzazioa eta fiskalitate egokia izan dezan Europako erakunde, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta Udalaren beraren partetik, horrela bermatuko baita industria jarduera berritzaileak eta jasangarriak garatzea, haztea eta finkatzea.
  - Ahalegin hori aurrerapen zientifikoak eta garatzen ari diren industrien erantzukizun soziala gizarteratzeko ere baliatuko da; ekitaldiak, mintegiak, topaketak eta kongresuak antolatzea da asmoa, bikaintasun zientifikoa eta teknologikoa errazago dibulgatu ahal izateko.
- **Inbertsioak I+G+i arloan.** helburua da gaur egungo inbertsio maila handitzea, BPGaren % 3,6a gainditu eta eta % 4ra gerturatzeko saiatzea.
- **Teknologikoki aurreratuak diren enpresak ezartzea ahalbidetzea.** Gure hiriarekin alderatu daitezkeen beste hiri berritzaileenetako jardunbide egokiak aztertzea, teknologia handiko enpresaguneak antolatzen eta garatzen egiten dituzten ahaleginak ezagutzeko.
- **Parte-hartze zuzena gizakiaren mesederako zientzia hedatzeko eta sustatzeko ekimenetan:** ekimen hauek ahalbidetzea eta bultzatzea eta beraietan parte hartzea, unibertsitate, teknologia parke eta ikerkuntza zentroekin batera: *Passion for Knowledge, Zientziaren Astea, Emakumeak eta Zientzia, Goi Mailako Ikastetxeen ate Irekien Jardunaldiak, Talentuaren Azoka...*
- **Lankidetzaz nazioarteko unibertsitateekin.** Konprometitzen gara, era berean, unibertsitateekin lankidetzaz eta truke proiektuak nazioarteko beste unibertsitateekin eta ezagutza zentroekin integratzea.

## ENPLEGUA ETA OPAROTASUNA SORTZEN DITUZTEN JARDUERA PRODUKTIBOAK

- **Dauden teknologia parkeak eta industrialdeak hobetzea oro har.** Erraztasunak ipiniko ditugu I+G+i arloan, digitalizazioan eta industria 4.0 / 5.0 arloan aurreratuak diren enpresa berriak sortu eta ezar daitezkeen, horrela kalitatezko enplegu gehiago sortuko delako.
- **Eskuzaitzeta industrialdean berrikuntza eta garapen gunea garatzea eta handitzea, Gipuzkoako industrialderik handiena delarik (1.000.000 de m<sup>2</sup> baino gehiago duen azalera eta 290.000 m<sup>2</sup>-ko sabai eraikia).** Industrialdea finkatuta dagoen errealitatea bat da eta enpresa berriak jartzen ari dira pixkanaka bertan; azken baten, hirian, Gipuzkoan eta Euskadinkalitatezko

enplegua eta aberastasun ekonomikoa eta soziala ekarriko dituzte. *OTIS igogailuak, GFA, FARMAGIPUZKOA, MUBIL, VICOMTECH, TECNALIA* eta *NATURKLIMA* dira, Eskuzaitzetan martxa betean instalazioak dituzten enpresetako batzuk. Denbora gutxi barru, *BIO-TECH-FOODS* enpresak izango du haragi zelularren Estatuko lehen ekoizpen planta; gaur egungo plantilla 177 lanpostura handitzea aurreikusten du 2024an. Eskuzaitzeta industrialdea hiriko lan eremurik aipagarriena izango da datozen lauzpabost hamarkadetan.

- **Miramón teknologia parkea zabaltzea 40.000 m<sup>2</sup>** gehiagorekin, enpresa eta ikerkuntza eta garapen ekonomikoko jarduera berriak sortu eta ezarri daitezten, teknologia eta berrikuntza industria ehunera transferitzeko proiektuak bultzatzeko asmoz. Zabaltze lanek Ilunbeko gaur egungo gunearen zati bat ere hartuko dute eta bertako azpiegiturak, behin birmoldatu eta egokitu ondoren, erabilera konbinatu bat izango dute: erabilera anitzeko pabiloi moduan erabiliko dira eta, aldi berean, ekimen zientifiko eta teknologikoen egoitza izango dira.
- **Belartza II industrialdea garatzea eta zabaltzea.** Belartza Alto izeneko industrialdea zabalduta, parkeak 210.000 m<sup>2</sup> izango ditu guztira industria jardueretarako (% 49), logistikarako (% 22) eta zerbitzuekin zerikusia duten jardueretarako (% 29).

## TALENTUA SORTZEKO, ERAKARTZEKO ETA FINKATZEKO JARDUERAK

- **Ikerkuntza kuantikoko gune berria Donostian.** *Ikerbasqueren Basque Foundation for Science* eraikin berri bat eraikiko da Ibaetako campusean IBM konpainiak garatu duen punta-puntako lehen ordenagailu kuantikoetako batentzat. Ordenagailua informatika enpresak munduan zehar instalatuko dituen lehenengo 6 prototipoetako bat izango da. Ikerkuntza kuantikoko gunean 300 bat pertsona ariko dira lanean epe ertainera, zuzendariak eta ikerlariak kontuan hartuta.
- **Donostia International Physics Center.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailarekin elkarlanean jardutea *DIPC Donostia International Physics Center*-en egoitza berria eraikitzen. Eraikina (6.800 m<sup>2</sup>) *Vailló+Irigaray Architect* estudioak diseinatu du eta Ibaetako campusean egongo da. Horri esker, erreferenteagoa izango da nazioartean zentroa bikaintasun zientifikoaren arloan eta faro bat izaten jarraituko du hiria eta Euskadi zientifikoki garatzeko norabide estrategikoan.
- **Talent House II bizitegi proiektua handitzea.** Etxebizitzak San Bartolome gainean ari dira egiten, 2023an amaituko dira eta pizgarri bat gehiago izango da ikerkuntzarako punta-puntako talentua gure hirira eta ingurura erakartzeko. Eraikin berriari esker, gaur egungo etxebizitzaren eskaintza handitu egingo da zientzialari eta ikerlarientzat, 70 apartamentu gehiago egongo dira.
- **Tabakalerako kultura garaikidearen nazioarteko zentroak ikerkuntza aplikatuko lau proiektu garatuko ditu 2023an,** nazioarte mailako lau proiektu hauek hain zuzen: biltegiatze digitalaren eragin ekologikoa, exoeskeletoen aplikazioa, adimen artifizialaren aplikazioa artean eta etorkizuneko elikagaiak. Proiektua garatzeko, aliantza estrategikoak egingo dira antzeko beste zentro europar batzuekin eta Alemaniako Gobernuak 300.000 euroko diru-laguntza emango du.
- **Basque Culinary Centerreko GOe (Gastronomy Open Ecosystem).** Nazioarte mailako hezkuntzagunea, hain zuzen ere gastronomia, talentua, zientzia, berrikuntza, ekintzailtza eta hiria uztartzen dituen gunea. Proiektuak

ikerkuntza, interakzioa eta ko-sormena ditu lehentasun, sareko topaketen eta dialogo digitalen bidez eta elkarlan sendoa baliatuz gastronomiaren inguruko ikerkuntza disruptibo eta aurreratuan diharduten enpresekin, taldeekin eta beste komunitate batzuekin. GOe (*Gastronomy Open Ecosystem*) egitasmoak Eusko Jaurlaritzaren babesa du "The Food Global Ecosystem" ekimenaren barruan.

- **Prestakuntzaren aldeko apustua hiriko ehun produktiboaren mesedetan.** Hiriko unibertsitate eta lanbide prestakuntzako ikastetxe guztiak koordinatzea eta jarduerak eta topaketak antolatzea, beren hezkuntza eskaintzak ezagutzera emateko eta dibulgatzeko eta prestakuntza jarduera eta lankidetzaren formatu berriak abian jartzeko, betiere gure ehun produktiboaren egungo beharrei erantzuten dieten jarduerak eta formatuak.
- **Lankidetzaren unibertsitateekin.** Udala baliabideak unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntzako ikastetxeekin (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, TECNUN-Nafarroako Unibertsitatea, Basque Culinary Centre, Musikene...) koordinatzea eta partekatzea, ikasleek lokal egokiak izan ditzaten exijentzia eta kontzentrazio gehien behar duten garaietan.
- **Barne ekintzailatza Udal administrazioan.** Hainbat erakundek, hala nola BIC-Gipuzkoak (GFA) eta Fabrikak (Adegi) planteatzen dituzten barne ekintzailatzarako ekimenetan parte hartzea, udal administrazioaren langileek prestakuntza etengabea izan dezaten.



## **2. DONOSTIA, BERTAKO SORKUNTZA ETA EKOIZPEN KULTURALAGATIK, GASTRONOMIAGATIK ETA KIROL JARDUERENGATIK NAZIOARTEAN EZAGUN DEN HIRIA**

## ERREFERENTZIAZKO HIRIA

*Donostiak kultura eta sorkuntza erreferentzia asko ditu, eta gure mugetatik harago argi ematen dute, hiri eta herrialde gisa. Gure hiriko kultura programazioa askotarikoa da, urte askotako ahalegin kolektiboaren fruitua, eta gurean zein nazioartean aintzatesten eta miresten dute. Hiri gutxik dute, gainera, horrelako programazioa.*

*Zinema, musika klasikoa, jazza, eskultura publikoa, musika korala, dantza, antzerkia, euskal musika, erlijio artea, etnografia, bertsolaritza, musika modernoa, museoak... Horiek guztiek eta beste kultura adierazpen askok gure hirian izena, nortasuna, espazioa eta berezko proiektzioa dituzte, ekintza eta ekitaldi kulturalen urteko eskaintza publiko eta pribatu zabalean.*

*Programazio eta jarduera kulturalak hiriko eragile sozioekonomiko garrantzitsuak dira. Dinamismoaren eta prestigioaren adierazle dira, eta baita aukera iturri ere sortzaile, artista, sustatzaile eta teknikoek osatzen duten kultura sarearentzat eta beste hainbat sektorerentzat, dendari eta ostalarientzat, adibidez.*

*Dinamismo kultural hori hiriko 11 kultura etxeen eskaintzan ere ikusten da; izan ere, 17.000 biztanleko kultura etxe bat dago. Horiek horrela, DK (Donostia Kultura) txartelak arrakasta handia du, gaur egun 116.000 bazkide baino gehiago baititu.*

*Beste horrenbeste gertatzen da hiriak hartzen dituen tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko kirol jarduera askorekin. Kirolaren gizarte alderdia kirol modalitate ugari maila guztietan duten garrantzian islatzen da, hasi eskola kirolean eta eliteko kirolera arte. Alde horretatik, emakumeen kirolak indar eta gizarte proiektzio handia du.*

*Ekitaldi bereziak, Frantziako Top 14 ligako errugbi partida kasu, hiriaren irudi positiboaren erakusle dira. Gainera, kirol jarduerak hainbat diru sarrera garrantzitsuak sortzen dituzte hirirako.*

*Garrantzi sozial eta ekonomiko hori kirolaren, kulturaren eta gastronomiaren arloko hainbat ekitaldi eta ekimenetan ikusiko dugu: Tourraren bigarren etaparen iritsiera (uztailaren 2an), Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrena (2024. urtean), Donostiako Zinemaldiaren eta Jazzaldiaren edizio berriak, Esther Ferrer eskultorearen obraren instalazioa Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan (Tabakalera), eta Basque Culinary Center-en Gastronomy Open Ecosystem (GOe) zentroaren eraikuntza.*



## DONOSTIA ERREFERENTE DA ARTEAN, KULTURAN, GASTRONOMIAN ETA KIROLEAN

- **Frantziako 2023ko Tourreko Grand Départ.** Erakusleiho bikain bat da, non Donostiak, beste behin, lehen mailako kirol ekitaldiak hartzeko eta antolatzeko duen gaitasuna erakutsiko baitu. 2023ko uztailaren 2an, Frantziako 2023ko Tourreko bigarren etapa Donostian amaituko da. Hori, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzarekin eta Euskadin 2023ko Tourreko Grand Départ-en parte hartzen duten gainerako erakundeekin egin dugun elkarlan estuari esker.
- **2024 - Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrena.** Aukera bikaina da Eduardo Chillidaren arte sorkuntzak bere hiriarekin, Donostiarekin, izan zuen eta oraindik ere daukan lotura estuan sakontzeko. Udalak mendeurrenaren ospakizunean parte hartuko du, erakunde gisa, Chillida Leku Museoaren eta ekitaldian engaiatu diren gainerako instituzioen eskutik.
- **Haizearen orrazia.** Hiriko eskultura eta arkitektura lan ezagun eta ederrena birgaitzeko eta zaintzeko lanak antolatuko ditugu, eta Europan eta munduan balora dezaten lan egiten jarraituko dugu.
- **Chillida Bidea sortzea eta egokitzea.** 6,2 kilometroko arte bide bat, Haizearen orrazia eta Chillida Leku Museoa lotuko dituena, museoaren hiru bereizgarri hauekin lotura duten eremu natural, urbano eta artistikoen bitartez: sorkuntza, artea eta natura. Gainera, hiria berroneratzeko elementu bat izango da.
- **Tabakaleran Esther Ferrer artistaren obra bat instalatzea.** Abiadura handiko trenaren geltoki berria eraikitzeko eta Urumearen ardatzaren eta Egiako auzoaren arteko zirkulazio eremua hiritartzeko obrak amaitu ondoren, Tabakalerak 5.000 m<sup>2</sup> baino gehiagoko parke jaso eta, inguruan, berdegune zabal bat izango ditu. Eremu horretan, Esther Ferrer artistaren (Urrezko danborra, 2022) *Zenbaki lehenen poema* saileko eskultura original bat instalatuko da.
- **Sailarteko Estetika Batzorde bat sortzea.** Batzordeak zeregin hauek izango ditu: hiri behatoki gisa jardutea; hiriaren proiektzio estetikoa lantzea; espazio publikoko hiri altzarien nortasunari eustea; ondare kultural, artistiko eta eskultorikoa zaintzea; eta hiri inguruneetarako eta hirigintza garapen berrietarako arte sorkuntzako ekimen ireki eta berritzaileak proposatzea.
- **Donostiak euskal arte sorkuntzan duen tokia indartzea.** Museoek (San Telmo eta Tabakalera), arte galeriek eta hiriko ondare artistikoa kudeatzeaz arduratzen diren udal langileek elkarrekin lan egingo dute.
- **Kultura etxeen eta liburutegien sareko eraikin eta azpiegiturak berritzea eta zerbitzuak eguneratzea.** Udal Liburutegia, Haur Liburutegia eta Lugaritz, Loiola, Okendo eta Egiako kultura etxeak.
- **Bizitza osorako kultura etxeak.** Herritarrek gai honen inguruan eztabaidatzea eta parte hartzea: kultura etxeak berritzea eta eraldatzea, 30 urtean arrakasta izan duen ereduak etorkizunean ere iraun dezan.
- **Kultura etxe berrien bideragarritasun eta eraikuntza proiektuak aurreikustea, diseinatzea eta gauzatzea,** hiria zabaltzeko martxan dauden jardueri dagokienez: Bidebietatik eta Urumearen ardatzetik (Txomin Enea edo Loiolako kuarteren hiritartzea) hiria zabaltzeko mendebaldeko ardatzera arte (Igara, Illarra, Infernua eta Añorga).

- **Ilunbeko zezen plaza osorik berregokitzea, erabilera anitzeko eraikina bihurtzea.** Teknikoki eta funtzionalki 'erabilera anitzeko' eraikin moderno bat izango da; hiriko agente publiko eta pribatuen kultura politiken koordinazioa eta lankidetzaren ardatz hartu eta kirol, kultura eta arte ekitaldi handiak izango dira bertan.
- **Zentro zibiko eta kultural berria Ibaeta auzoko Kontadores eraikinean.** Espazio bat berregokitzea eta birgaitzea Altza eta Herrera auzoei ere zerbitzua emateko. Metropoli proiektu bat, Pasaia badi biziberritzeko lanen barruan.
- **Arlo publikotik kanpo sortzen diren kultura eta sorkuntza ekimenei leku ematea,** haiek aintzat hartuz eta lankidetzarako aukera emanez, guztion den hiriko kultura ondasunari balio erantsia emateko.
- **Hiriko arte kreatiboaren eta arte sortzaileen ahalmenaren aldeko apustua egiten jarraitzea.** Helburua da sortzaileek artean, musikan, dantzan, antzerkian eta zinean egiten dituzten ekarpenei eta sortzen ari diren adieazpen artistiko berriek (esaterako, Argi Artean) egiten dituztenei esker, gure hiriarren kultura irudia, nortasuna eta ahalmena indartzea Euskadiko nahiz nazioarteko artearen unibertsoan.
- **Donostia Apain.** Hiriko artista grafikoekin elkarlanean muralak sortzeko programa bat planifikatzea, hiriko zenbait eremu, eraikin eta auzo arte aldetik onbideratzeko.
- **Sinergiak identifikatzea, aztertzea eta indartzea** Donostia Kulturak, Tabakalerak, San Telmo museoak eta beste agente artistiko publikoek eta pribatuek, hala nola galeriek eta erakusketa aretoek eratzen duten sarean, arte sorkuntzarako bide berriak irekitzeko asmoz.
- **Hiriko arte galeriekin hasitako lankidetzaren zaintzen jarraitzea** baterako egitasmoak lantzea, hala nola artelanak erostea edo publikoa erakartzeko eta fidelizatzeko jarduerak gauzatzea, *IREKIAK – Gallery Weekend* bezalako ekimenen bidez edo obrak eskuratuz.
- **Proaktiboak izatea ikus-entzunezko sorkuntzako hub bat sortzeko prozesuan.** Aliantza estrategikoak sortzea eta dinamizatzea agente publikoen, Euskadiko ikus-entzunezko sektorearen eta EIKEN Euskadiko ikus-entzunezko enpresen klusterraren artean. Agente publikoen artean leudeke Donostia Kultura, Tabakalera arte garaikidearen nazioarteko zentroa, 2de0, Zinemaldia edo EITB.
- **Azpiegiturak, irisgarritasun elementuak eta ekipamendu teknologikoak berritzea** kultura eraikinetan eta espazioetan, hala nola Victoria Eugeniaren (eszenategiko ekipo teknikoak monitorizatzea).
- **Hausnarketa estrategikoa Antzoki Zaharrari eman lekizkiokeen erabileren inguruan.** Hausnarketa estrategikoak izan behar du, besteak beste, antzokiak gaur egun dituen irisgarritasun arazoak konpontzeko.
- **Gobernu Zentralarekin negoziatzen jarraitzea, Pio XII.a plazan dagoen Gobernu Zibilararen eraikina** zentro erreferente bat bihurtu dadin Amara auzoarentzat.

- **Olatuen bidea eraikina eraikitzea, Basque Culinary Centeren International Gastronomy Open Ecosystem (GOe) egitasmoaren egoitza alegia, Nafarroa etorbidean, Uria mendiko parkearen behealdean.** Eraikina Danimarkako BIG (*Bjarke Ingels Group*) arkitektura taldeak diseinatu du, Basque Culinary Centre-ek eginiko ideia lehiaketaren irabazleak. Diseinu arkitektoniko berezia da, eraikina inguruko hiri eremuan eta paisaian nola txertatuko den kontuan hartuta.
- **Artea eta zinema elkarrekin sortzea eta ekoiztea.** Bideojokoak Donostia Kultura, EITB eta Tabakaleraren artean euskaraz sortu eta ekoizteko moduak aztertzea.
- **Donostiako kaiako museo eta historia ibilibideak indartzea eta dibulгатzea.** Kaiak, Aquariumek, Itsas Museoak eta Urgull mendiko kultura, historia eta natura baliabideek eratzten duten ingurune fisikoari dagokion balioa ematea eta haiek sortzen duten sinergia soziokulturala ustiatzea.
- **Idazle donostiarren hiriko literatura mapa bat prestatzea.** Mapa interaktibo bat eratzea, garai guztietako idazle donostiarren bizi eta sorkuntza ibilbideak oinarri izango dituen mapa, jatorrizko literatura ibilbideez gozatzeko.
- **Hiriko jaiegunetako jarduerak duten eragin handia probestea,** motor ekonomiko (jaiegunekin zerikusia duten jarduerak eta enpresak) eta sozial (natura, berdintasuna eta euskara lantzeko tresna) moduan.
- **Eraikin berria *Francisco Escudero* kontserbatorioarentzat.** *Francisco Escudero* kontserbatorio berria berrurbanizatzen ari den Amara Zaharra eremuan kokatzea, gaur egun ETS Eusko Trenbide Sarearen burdinbideek hartzen duten gunean.
- **Udal Musika eta Dantza Eskola.**
  - Eskolak hirian duen presentzia soziala eta kulturala handitzea. Donostiarren % 1,5 eskolaren erabiltzaile izatea lortzea.
  - Eskolaren hezkuntza eskaintza berritzea, dantza eta musika kultura irakasteko diziplina edo modalitate berriak aplikatuz.
  - Dantza eta musika irakastea balio jakin batzuekin lotzea, hala nola norberaren hazkundearekin eta hobetzearekin, elkarlanarekin eta inklusioarekin.
  - Sinergia harremanak sendotzea eskolaren eta Musikene Euskadiko goi mailako musika ikastegiaren artean.

## **ERREFERENTZIAZKO HIRIA NAZIOARTEAN SEKTORE KONGRESUETAN, KULTURA EKITALDIETAN ETA TURISMO SUSTAPENEAN**

- **Donostiako Zinemaldia.** Bere nazioartekotasuna bultzatzea eta sendortzea patronatuko beste erakundeekin batera, tokiko zinemagintzako industrietzat lehen mailako erreferente izan dadin.
- **Kursaala handitzea.** Udalak Kursaala handitzeko proiektuan parte hartzea. Proiektuaren bidez, Kursaalaren aforoa optimizatu egin nahi da tokiko, estatuko nahiz nazioarteko gizarte, kultura eta enpresa ekitaldietarako.
- **Kursaala eta Miramar jauregia modu partekatuan kudeatzea.** Sinergiak identifikatzea eta baliabideak optimizatzea hiria tokiko, estatuko nahiz

nazioarteko ekitaldien egoitza moduan bultzatzeko eta, horretan, Miramar jauregiak protagonimo berri bat izango du, UPV/EHUko Udako Ikastaroen egoitza ofiziala izaten eta hiritarrek eskatzen dituzten ekitaldi sozial jakin batzuen leku izaten jarraitzeaz gain.

- **Hiriak bizi duen turismoaren arrakasta modu jasangarrian kudeatzea.** Gure asmoa da turismoa industria jasangarri bat bihurtzea, hiriarentzako aberastasuna eta hiritarrentzako ongizatea ekarriko duen industria. Horretan, kalitatea lehenetsi behar da, ez kantitatea. Koordinatuta erakundeen (Udalaren eta Foru Aldundiaren) eta sektorearekin zerikusia duten agente guztien artean. Irekita Gipuzkoa Lurraltera eta Euskadira. Gure kulturaren erakusleihu ezin hobea. Buruz kudeatu behar dugun jarduera da, adimen analitiko eta emozionala baliatuz. Gure xedea da Donostia zaintzea eta hiriak gaur egun duen oreka ez haustea, hiria eta donostiarrak zainduz. Oro har, hau da kudeatu behar dugun errealitatea:
  - Ostatu, hoteleko plazen eta etxebizitza turistikoaren eskaintza % 44 hazi da 2016tik. 16.500 izateraino.
  - Donostian gauak igarotzen dituzten bisitarien % 60a Estatukoa da eta % 40a Estatuz kanpoko (2021eko datuak).
  - 2022an 1.700.000 ostatu-gau baino gehiago izan genituen.
  - Donostia Turismoa udal entitateak jasotako datuen erabera, txangozaleatasuna % 37,2 hazi zen 2015ean eta % 62,3 2019an.
  - 2021ean, turisten % 68a kotxe partikularraz iritsi zen hirira eta % 2,6a karabanaz.
  - 2022an inkesta bat egin zitzaion 1.781 hiritarrei eta:
    - hiritarren % 88ak uste du turismoa elementu mesedegarria dela hiriarentzat;
    - % 69ak uste du turismoa jarduera garrantzitsua dela, ekonomiari laguntzen dioena; eta
    - % 66aren iritziz, bisitarien kopurua bere mugara iritsi da.
- **Hiria helmuga turistiko gisa babesteko tresnak inplementatzea eta hedatzea, bisitarien eta donostiarraren arteko orekari eusteko eta turismo jasangarria sendotzeko.**
  - Turismo tasa. Turismo tasa inplementatzea bultzatzea, turisten joan-etorriak bere ekarpena egin dezan hiriko azpiegituren eta zerbitzuen hobetze, mantentze eta berritze lanetarako.
  - Autokarabanen joan-etorria eta aparkatzea arautzea, hirian gauik igaro ez dezaten.
  - Hotelez eta turismorako etxebizitzez betetako zona berriak deklaratzeko.
- **Turismo bulego berria martxan jartzea udaletxean.** Kokaleku berriari esker, hobeto atendituko dira hiria bisitatzera etorri eta informazioa edo orientazioa behar duten pertsonak, hainbat gairen inguruan: beren egonaldian izan ditzaketen jarduerak, hiriak eskaintzen dituen zerbitzuak, dituzten eskubideak eta hiriko behin-behineko biztanle gisa dituzten betebeharrak.
- **Turismo gidariak erregistratzea eta trebatzea.** Erregistratzeko baldintzak zehaztea eta, hiriko lanbide ikastetxeekin batera, trebakuntza moduluak prestatzea eta eskaintzea aztertzea, Donostian turismo gidari lanetan aritu nahi duten guztientzat.

- **Turismoa sustatzea.** Sektoreko jardunaldiak, jardunbide egokiak eta azokak identifikatzea turismoaren sustapenerako, betiere gure hiriaren turismo ezaugarrientzat erreferenteak izan daitezkeenak. Parte-hartze zuzena sustapen turistikoko azoketan, hala nola Madrilgo FITURen, Bartzelonako IBTM World-en, Berlingo ITBn eta Londreseko World Travel Mart-en.
- **Ostalaritzako negozioak arautzea.** Ordenantza berri bat prestatu, onartu eta martxan jarri behar dugu, ostalaritzako establezimendu berrien irekiera arautzeko, establezimenduen arteko distantziak kontuan hartuz, saturazioguneak saihesteko.
- **Terrazak instalatzeko eta mantentzeko gaur egungo Ordenantza aldatzea.** Sektorearen eta Ostalaritza Elkartearen inplikazio zuzenarekin, ostalaritzako terrazak instalatzeko eta mantentzeko gaur egungo Ordenantza aldatzea, normalizazio prozesu bat berrezartzeko asmoz, COVID19ak eragindako pandemiaren ondorioz izandako ezohiko garaia igaro dela-eta.
- **Hurbileko ostalaritza, ostatu eta merkataritza.** Merkatarien eta ostalarien elkarteekin batera, katalogo digital eguneratuak ipiniko ditugu hiritarren eta hiria bisitatzera datozen pertsonen eskura, ostalaritza, ostatu eta merkataritzako eskaintzaren berri izan dezaten.
- **Udal jarduerak hiriko merkatarien sarea suspertzen laguntzeko elementu pizgarri eta bultzatzaile moduan.**
  - Merkataritzagune berria inauguratzea Bretxan eta Bulebarren eta Aldamar kalearen arteko bidegorria beste era batera antolatzea.
  - Isabel II.a kaleko oinekoentzako eremua ARCCO merkataritzagunera hurbiltzea eta gune horretan txertatzea, Irun plazako biribilgunean hirigintzako jarduketa baten bidez.
  - San Martin merkatuaren inguruan aurreikusita dauden hobekuntza lanetan laguntzea.
  - San Bartolomen merkataritzarako erabiliko den azalerari buruzko jarduketak, hirigintzakoak eta sustapenekoak, hiriko merkataritza sarean.
- **Itxi diren etxabeetako dendak modu jasangarrian kudeatzea.** Jabeekin, merkatarien elkarteekin eta dagokion auzoko bizilagunen elkarteekin elkarlanean, hondatze prozesuak ekiditeko modurik onena aztertzea, jarduera utzi eta itxi diren lokalek abandonu sentsazioa ematen dutelako.
- **Ekimen jakin batzuk berreskuratzea eta bultzatzea, hala nola Colectiva Kalea, erakusleihen lehiaketak edo antzekoak, merkataritza eremuetako kaleetan eta egun seinalatuetan (Gabonetan, Aste Nagusian, merkealdietan...) giroa dinamizatze.** Merkatarien elkarten eta *Sshops Donostia* bezalako plataformen bidez, kultura dinamikak sortzea, merkataritzak, arte eszenikoek eta musikak amankomunean dituzten interesak arakatu eta batuko dituzten dinamikak alegia.
- **Hiriko azoken urteko agenda auzoz auzo.** Azoken urteko plangintza prestatu eta sektore interesdunen eta, oro har, hiritarren esku jartzea: azokak, azoka txikiak, esposizioak eta erakusketak, hurbileko elikagaienak, bertako artearena eta artisautzarena, bigarren eskuko salerosketarena, ekonomia zirkularrarena..., halako jardueren bidez balioa emateko eta ematen dituzten zerbitzuak eta tokiko merkataritzarekiko duten osagarritasun izaera dinamizatze.

- **Ehun urtetik gorako merkataritza eta ostalaritza jardueri hiriaren aitormena egiteko ekimena martxan jartzea.** Ehun urte beteak dituzten merkataritza eta ostalaritza jardueren katalogoa prestatzea, aitormenak berak izan behar dituen ezaugarriak diseinatzea eta haren euskarri juridikoa definitzea.
- **Zine komertzialeko zinema aretoak indartzea.** Lankidetzaren mekanismoak eta programak bultzatzea Zinemaldiaren, Euskadiko Filmmategiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren (*Zinema Euskaraz* programa) eta zine komertzialeko hiriko zinema aretoak kudeatzen dituzten enpresen artean, zinea zinema aretoetan kontsumitzeko ohitura berreskuratzeko eta indartzeko formulak aktibatzeke.
- **Lankidetzaren Etxepare euskal institutuarekin,** euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko erreferentziazko mekanismoak gure hirian aktibatzeke.

## NAZIOARTEAN ERREFERENTZIAZKO HIRIA DUEN BIZI KALITATEAGATIK KIROL ETA OSASUN ARLOETAN

- **Anoetako kirol hiri berria.** Kirol hiri moderno bat Anoeta-Ilunbe eremuan birsortzea aztertzea, proiektatzea eta adostea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, Europar erreferente izango dena:
  - Kirol hiriarri esker, kirola egiteko azpiegiturak modernizatuko dira, goi errendimenduko kirola, eskola kirola, kirol amateurra eta hirugarren adinekoen kirola egiteko azpiegiturak alegia.
  - Kirol hiriarri esker, gainera, I+G+i arloko *Sport Hub* gune bat sortzeko behar diren azpiegiturak ipiniko dira, eta azpiegitura horiek enpresek baliatuko dituzte kirola egitearen eta errendimendua optimizatzearen arteko erlazioak eta kirola egitearen, osasunaren eta ongizate sozialaren arteko gizarte ongizatearen arteko korrelazioa aztertzeke.
  - Proiektuari esker, Anoetako kirol azpiegiturak goitik behera eraberritu eta modernizatuko dira, horretarako premia badute betiere: Josean Gasca kiroldegia, Atano III, Antonio Elorza belodromoa, Ilunbe erabilera anitzeko pabiloia, Carmelo Balda frontoia eta Paco Yoldi kiroldegia.
- **Donostia emakumeen kirolaren erreferentzia bertan nahiz nazioartean.** Lankidetzaren hiriko erreferentziazko klubekin eta ikastetxeekin, emakumeen kirola sustatzen jarraitzeke, eskola kirolatik eliteko torneoetara, kirol modalitate guztietan.
- **Kirol Txartelari indar berri bat ematea kirol osasugarria sustatzeko motor moduan.** Helburua da erabiltzaile kopurua handitzea, kirola elementu estrategiko gisa sustatzeko. PIZTU programa indartzea eta arreta gehiago jartzea eskola kirolean, kirol federatuan eta bertako kirolean.
- **Kirol Txartela KTM Mugiment txartelean txertatzea.** Donostia Kirola erakundearen Kirol Txartelaren erabiltzaileen artean (46.000 baino gehiago) App KTM – Kirol Txartela Mugiment txartelari atxikitzeak dituen abantailen berri ematea eta atxikitzea sustatzea. KTM Mugiment Eusko Jaurlaritzako Kirol Jarduera eta Kirolaren Zuzendaritzak bultzatutako txartela da. Txartela birtualari esker, hiriko kirol instalazioetako harpidedunek beste udalerrietako instalazioetara sartu ahal izaten dira, kostu gehigarririk gabe, udalerririk bakoitzaren baliabideen arabera.

- **Anoetako miniestadioa eraberritzea.** Hirian instalazio berri bat jartzea, gaur egungo miniestadioak dituen gabeziak bete eta atletismoan, errugbian eta futbolean behar bezala aritzeko.
- **Kirol instalazio berri bat sortzea bultzatzea Merkaer-en:** Herrerako gaur egungo instalazioa ordezkatu eta hobetu egingo luke instalazio berriak.
- **Bretxako kirol pista burutzea eta irekitzea.** Denbora gutxi barru pista eraiki berri bat inauguratu eta martxan ipiniko da Alde Zaharra auzoarentzat.
- **Hiriko kirolari buruzko plan bat garatzea.** Udalaren Kirol Patronatutik aire zabaleko kirolguneen instalazioa bultzatzea, gero eta indar gehiago hartzen ari diren kirol modalitate berrei erantzuteko eta zerbitzua emateko.
- **Antiguoko eta Igeldoko frontoiak eraberritzea eta Altzako kiroldegian harmailak instalatzea.** Antiguoko frontoian, harmailak handitzea, esaterako Antiguoko Pilotazaleok elkarteak —2023an 75. urteurrena beteko du— antolatzen duen Antiguoko Pilota Txapelketa ikustera joaten den publikoarentzat eta Igeldoko frontoiko instalazioa goitik behera eraberritzea. Altzako kiroldegian harmailak instalatzea.
- **Urumea ibarra berreskuratzea ur kirolak egiteko.** Urumeak ematen dituen aukerak aprobetxatzea, inguruko klubek eta hiriko kirol agenteek beren jarduerak gauzatu ditzaten.
- **Hiriko udal kiroldegia eta gimnasioetako ekipamenduak hobetzea.** Makineria aldatzea, ematen zaion erabileraren eta eskatzen duen mantenimenduaren arabera, eta instalazioak hobetzeko proiektuak bultzatzea (esaterako, Mons kiroldegiaren alboa ixtea, Intxaurrendoko kiroldegiko gimnasioa handitzea edo Etxadiko gimnasioa berritzea).
- **Surfarekin lotutako jarduerak bultzatzea eta sustatzea.** Donostia surfaren munduko erreferentziatzko hiri moduan sendotzea, hainbat ekimenen bidez, hala nola kirol, gizarte eta ekonomia jarduerak bultzatuz, surfaren klusterra indartuz, surfaren inguruko ikerkuntza eta sentsibilizazio proiektuak erakarriz eta itsas ingurunea zainduz.
- **Hirian kirola egiteko dauden azpiegituren katalogoa prestatzea.** Ariketa fisikoa eta kirola egiteko erabil daitezkeen azpiegiturei buruzko katalogo digitalizatua hiritarren eskura ipintzea.
- **Mendi ibiliak eta hiriko parkeez eta naturaz gozatzea.** Mendi ibiliei eta hiriko eta inguruetakoko parkeen eta berdeguneen sareari buruzko katalogo digitalizatuak eta eguneratuak, geolokalizazioko informazioarekin, hiritarren eskura ipintzea, hiritarrek ezagutu eta goza ditzaten.
- **Nazioarteko ekitaldietara etortzen diren kirolari eta teknikarientzako ostatu.** Hiriko hainbat agenterekin batera lan egitea Donostiara kirol ekitaldietara etortzen diren kirolari ez profesionalak hirian edo inguruan ostatu izan dezaten.
- **Donostiako hipodromoko harmailak hobetzea, egokitzea eta berritzea, irisgarritasunari erreparatuz.** Proiektuak Next Generation funts europarren laguntza du.

- **Kirolaren europar hiria.** Kirolaren europar hiriburuen eta hirien Elkarteari (ACES Europe) Donostiaren hautagaitza aurkeztea, 2030eko kirolaren europar hiria izendatu dezan. Indargune hauek aurkeztuko ditugu:
  - Eskola kirolaren sustapena, hondartzako futbola moduko ekimenen bidez.
  - Genero berdintasuna, eskola kirola eta gazteen kirola sustatzerakoan.
  - Emakumeen kirolaren presentzia eliteko lehiaketetan.
  - Antolaketaarako dugun gaitasuna eta publikoaren erantzuna nazioartean izen handiko kirol probetan (Frantziako Tourra, Top14 Rugby, atletismoko Behobia-Donostia, maratoia...).
  - Zenbait ekitaldik hainbat balio hedatzen egiten duten ekarpena; esaterako, Donostia Cup ekitaldiaren bidez, kultura aniztasunarekiko eta dibertsitatearekiko errespetua eta desberdinen arteko elkarbizitza zabaltzen dira, kirola alkartasun moduan hartzeaz gain.
  - Bertako kirolen sustapena; bereziki, Kontxako estropadak.
- **Donostiaren hautagaitza bultzatzea 2030eko munduko futbol txapelketako egoitza izendatzeko.** Legegintzaldi honetan zehar, behar diren mekanismoak eta ekimenak aktibatuko ditugu Donostiaren hautagaitza bultzatzeko, 2030eko munduko futbol txapelketako egoitza izendatua izan dadin.



### **3. DONOSTIA HIRI SEGURUA, ZAINDUA ETA ATSEGINA, BIZITZA PROIEKTU LIBRE ETA SOLIDARIOAK AHALBIDETZEN ETA SUSTATZEN DITU**

## GARAPEN JASANGARRIA

*Donostia dagoeneko azpiegiturak berritzeko prozesuan murgilduta dago bete-betean. Azpiegitura horiek hiriko paisaia aldatu, zabaldu eta modernizatuko dute.*

*Asko dira hirian gertatzen ari diren aldaketak, eta, epe ertainera, erabat aldatuko dute hirian zehar mugitzeko, etxebizitza bat lortzeko eta azpiegitura eta gune publiko berriez gozatzeko dugun modua.*

*Aldaketa prozesu sakon horietan zehar, etxebizitza berriak eraiki eta sustatzeko politikek helburu argi bat izango dute: bi egoeraren arteko oreka bilatu eta hari eustea. Izan ere, alde batetik, belaunaldi berriek emantzipazio duina behar dute bizitza pertsonal eta familiarreko proiektuetarako, eta horrek eskakizun saihestezinak dakartza; bestetik, hiriarentzat beharrezkoa da biztanleriak gora egitea.*

*Beraz, gure konpromisoa honako hau da: alokairuko etxebizitza publikoaren politika tinko eta irmoa indartzea.*

*Datuak ziurtatzen dute: 2033. urtera begira, Donostian 6.300 etxebizitza berri eraikiko dira pixkanaka, eta alokairuko babes publikoko etxebizitzari bultzada handia emango zaio. Loiolako kuarteleko lursaila eskuratzeko inbertsio handia egiten ari gara; izan ere, funtsezko mugarrria da epe ertaineko helburu hori lortzeko.*

*Ezinbesteko konpromisoa da; gure erronka nagusietako bat da, eta baita etorkizunera zuzendutako begirada irekia ere, arlo estrategiko batean. Gure hiriaren etorkizuna osatzeko funtsezko tresnak ditugu: lurzoru publikoaren erreserbak, titulartasun publikoko etxebizitza parke bat alokairuan eta Udalak hirigintzaren bidez lortzen dituen etekinak etxebizitza politikara bideratzea.*

*Irtenbide horretarako beharrezkoa da botere publikoek zuzenean esku hartzea etxebizitza garatzeko eta eraikitzeko prozesuaren fase guztietan. Eta hala egingo dugu. Datozen lau urteotan zehar, Alokairuko Etxebizitza Publikoak Eraikitze Plan Berezia sortzeko konpromisoa hartuko dugu, eta ezohiko aurrekontu bat esleituiko diogu.*

*Eusko Jaurlaritzarekin batera eratuko da etxebizitza politika, eta garrantzia berezia emango zaio beste erakunde publiko batzuekin koordinatzeari eta elkarren osagarri izateari. Halaber, plangintza Donostiako metropoli eremuko udalerriekin koordinatuko da, jasangarritasun irizpideak mantenduko dira, eta lurzorua artifizial bihurtzea saihestuko da ingurumen intereseko guneetan eta hiriko goialdeetan.*

*Erdiguneko alderdi hori metropoli ikuskerarekin osatuko dugu: izan ere, Donostia-Paisaia eremua arrakastaz eraldatzen hasi da, benetako hiri berroneratze bati esker. Gainera, plangintza orokorra ere kontuan hartuko dugu, oso beharrezkoa baita Pasaia-Herrera-Donostia eremu konplexuan.*

*Donostiarren bizitzako etapa guztietan haiek zaintzearen alde egiten du gure Donostiak. Horretarako, hainbat ekintza sustatuko ditugu, hiria eremu gizatiarragoa eta atseginagoa izateko, gazteenei bizi proiektuak garatzea ahalbidetzeko eta gehien behar dutenei zaintza eta babesa eskaini ahal izateko. Donostia gero eta bateratuagoa, solidarioagoa eta bizi kalitate altuagokoa izango da.*

*Gure hirian segurtasuna indartzen jarraituko dugu. Polizia eredu komunitario, hurbiltasuneko eta prebentziozkoaren aldeko apustua da gurea, eta delituzko portaeren aurrean, erabakitzailea eta efikaza izango da jarduteko prozedura.*

*Hain zuzen ere, erakundeen arteko koordinazioa da EAJk azken 8 urte hauetan lideratu duen Donostiako udal gobernuaren alderdi garrantzitsuenetako bat. Helburu horretarako, funtsezkoa da Europako erakundeekin, Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzea, eta baita Donostialdeako udalerrri guztiekin metropoli ikuskera eta ekintzak indartzea ere.*

## ETXEBIZITZAREN ESKARIA ETA ESKAINTZA KUDEATZEKO POLITIKA AKTIBOAK ETA ERABILERA PUBLIKORAKO GUNE BERRIAK TAXUTZEA

- **Aurreikusitako planak:**
  - **Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berria lantzea eta onartzea.** Plan horrek dagoeneko badauden hirigintza planak txertatuko ditu, sortzen ari diren proiektu berrietarako esparru orokorra berriro definituko du, hotel berriak eraikitzeke lizentziak mugatuko ditu, hiriko gune bakoitzaren saturazio mailaren arabera etxebizitza turistiko berriak irekitzea arautuko du, eta gure hiriak datozen urteetan beharko dituen etxebizitzaren eraikuntza bolumena optimizatuko du.
  - **Etxebizitzaren Gida Plana eguneratzea eta onartzea.** Hirian eta haren metropoli inguruan gaur egun dauden eta etorkizunean egongo diren etxebizitza eskariaren premietara egokituko da.
  - **Etxebizitza parkea handitzea.** Batez ere, gazteen emantzipazio premietara eta familia berrien eraketara egokituko da.
  - **Alokairuko Babes Ofizialeko Etxebizitzak sustatzea.** Sortuko diren babes ofizialeko etxebizitzetan alokairuaren modalitatearen aldeko apustua egiten dugu.
  - **Etxebizitza hutsak berreskuratzeko edo merkatuan aktibatzeke legeke neurriak.** Arlo horretako Estatuko eta autonomia erkidegoko legeak ezarriz, neurriak arautu eta sustatzea, jabeak haien etxebizitza hutsak (hiriko etxebizitza guztien % 1,1) alokairuko etxebizitzaren eskaintza merkatuan jartzera animatzeko.
  - **Urtero urtarrilaren 1ean etxebizitza hutsen patroia betetzen duten etxebizitza horiei OHZren % 100eko errekarua aplikatzen jarraitzea.** Etxebizitza hutsak dira erroldatutako pertsonarik ez badute, jarduera ekonomiko batera loturik ez badaude eta urtean 10 m<sup>3</sup> ur baino gutxiago kontsumitzen badute.
  - **Eusko Legebiltzarraren Etxebizitza Legearen babesean, neurriak hartzearen egokitasuna eta bideragarritasuna aztertzen jarraituko dugu, etxebizitza hutsen arazoari amaiera emateke.** Etxebizitza hutsen jabeek kanon bat ezartzeko aukera: 10 € m<sup>2</sup>-ko, eta % 10eko igoera urteko.
  - **Gutxiegi erabilitako etxebizitzak bereiztea eta egokitzea erraztuko duten araudi espezifikokoak.** Horrelako jarduketan tramitazioa errazten jarraitzea, eraikitako etxebizitzaren metro koadroko biztanleria dentsitate txikiko hiriguneak biziberritzeko.
  - **Cohousing edo belaunaldien arteko elkarlaneko etxebizitzaren formulak aztertzea.** Euskadin edo Donostiaren antzeko beste hiri batzuetan egiten ari diren esperientziak eta jardunbide egokiak aztertzea, ekintza horiek ezartzeko aukera egokitu eta arautzeko.
  - **Erabiltzen ez diren merkataritza etxabeak etxebizitza bihurtzea.** Ditutzen ezaugarriengatik horrelako ekintzak ahalbidetzen dituzten hiriguneetan plan hori egokia ote den baloratzen jarraitzea, auzotarrei eta komunitateko edo merkataritzako beste jarduera batzuei kalterik egin gabe.

- **2023-2030 aldirian 6.300 etxebizitza berri baino gehiago eraikitzeko aurreikusitako plan guztiak aktibatzea. Etxebizitza berriak eraikitzeko jardun arlo nagusiak:**
  - **Epe motzera, onartutako eta egiten ari diren edo egingo diren planak (1.993 etxebizitza guztira):**
    - Lorategi Hiria Loiolan: 292 etxebizitza.
    - Txominenea Ilren garapena: 359 etxebizitza.
    - Infernua: 540 etxebizitza.
    - Illarrako eremua: 262 etxebizitza.
    - Igara auzoa: 250 etxebizitza.
    - Añorga auzoa: 248 etxebizitza.
    - Apostolado gunea: 42 etxebizitza.
  - **Epe ertainera, garapenean dauden planak (4.335 etxebizitza guztira):**
    - Loiolako kuartelak. 1.700 etxebizitza eraikitzea, eta hiria zabaltzeko hiri eremu berri bat doitzea, dagozkien zerbitzu publiko eta erabilera komuneko gunee berde eta oinezkoentzako guneeekin.
    - ETS – Eusko Trenbide Sarearen errailgunea Amara Zaharrean: 400 etxebizitza, gizartezerbitzuetarako eta kultura jardueretarako eta oinezkoentzako guneeak eraikitzea.
    - Jolastokieta III: 380 etxebizitza.
    - Antzita: 720 etxebizitza.
    - Sarrueta: 1.080 etxebizitza.
    - Martutene: 55 etxebizitza.
- **Etxebizitzak eraikitzeko planetako beste ekintza osagarri batzuk:**
  - Zuzkidura apartamentuak / Gazteentzako alternatiba:
    - Alde Zaharrean: Kanpandegi kalea
    - Grosen: Manteo kalea
    - Martutenen
    - Loiolan: Txominenea
    - Amara Zaharrean: Amara kalea
    - Antiguan: Añarbeko Uren partzelak
    - Altzan: Eraikuntzaren Institutua
  - Esnabide gunea: 250 etxebizitza eraikitzea, horietako 173 babes ofizialekoak eta 77 tasatuak.
- **Illunbeko konplexua birmoldatzeko eta erabat berraktibatzekeo plana, bi alderdi osagarriekin:**
  - Erabilera anitzeko pabiloia kirol jardueretarako, ekitaldi ludiko kulturaletarako eta dagokion merkataritzagune dimentsionaturako.
  - Egungo merkataritza eta zerbitzu gunea berroneratzea eta Miramongo teknologia parkea handitzeko proiektu batean txertatzea, eta ikerketa biomedikoko ekimenak eta oinarritzko kirolarekin (eskola kirola, gazteentzako edo adinekoentzako kirola) zein eliteko kirolarekin lotutako enpresa berritzaileak barne hartzeko aukera izatea.

- **Hiriko lurpeko aparkaleku plazen eskaintza doitzea.**
  - Bertakoentzako aparkaleku plazen benetako eskaera behatzea eta aztertzea.
- **Donostiako ESlaren ospitale konplexua berrantolatzeko eta zerbitzuak handitzeko hirigintza jarduketak.** Helburua honako hau da:
  - Erabateko lankidetzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin, Donostiako ESlaren ospitale konplexua birmoldatzeko prozesurako beharrezkoak diren hirigintza jarduerak gauzatzeko eta zerbitzuak egokitzeko.
  - Donostiako ESlko ospitale konplexua etorkizunean handitzeko eta moldatzeko aurreikusitako lanak egokitzea, herritarrei osasun arreta eskaintzeko zerbitzuak gaurkotuz eta hobetuz.
- **Osasun zentroak mantentzeko, hobetzeko eta sortzeko jarduerak.** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan, gaur egun dauden Osasun zentroak / Anbulategiak mantentzeko eta hobetzeko ekintzak aurreikustea eta planifikatzea, eta zentro berriak eraikitzea, hiriaren egungo eta etorkizuneko hazkunde eta hedapen premiak kontuan hartuta. Aurki Bretxako osasun zentro berria irekiko da, eta epe ertainera Txomineneako osasun zentro berria eraikiko da.

## **BIZIKIDETZAKO, INKLUSIOKO ETA ELKARTASUNEN GIZARTE POLITIKAK**

- **Erlauntzak.** Udalak bultzatutako hurbiltasun ingurumen batean jarduten duten hainbat zerbitzuetako ordezkariak parte hartzeko dinamika bultzatzea eta auzo bakoitzera egokitzea. Dinamika sozial hori komunitateko eragile publiko eta pribatuen arteko behaketara, prebentziora eta lankidetzara bideratuta dago, komunitate bakoitzaren beharrei erantzuteko. Osasun, gizarte, kultura, kirol eta hezkuntza zerbitzuak koordinatzen dituen sistema, arreta hobetzeko.
- **Etxean ordu asko bakarrik igarotzen dituzten haurrei arreta emateko premien eta erantzun programen detekzioa hobetzen jarraitzea.**
  - Zaurgarritasun egoeran dauden adin txikikoen eta haien familien esku jartzea udal programen jarduerak, hala nola, Hautxokoak eta Gaztelekuak, Kiroletako Udal Patronatua edo Kultur Etxeak.
  - Hirugarren sektoreko zenbait elkarten eskaintzen dituzten baliabide eta zerbitzuen erabilera erraztea.
- **Familiaren, haurren eta norbanakoen pobrezia aurkako prebentzio eta jarduerak politikak.** Gizarte larrialdietarako laguntzak eta udal laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten familia guztiek laguntza horiek jaso ahal izango dituztela bermatzea, eta aurrekontua atzematen diren beharretara egokitzea.
- **Esku-hartze goiztiarreko programa mantentzea eta indartzea.** Egoera une oro aztertzea, behar diren unitate profesionalak sortzea eta unitate horien arduraldia gidatzea.

- **Adin txikikoen babesgabetasun egoeretan alde zuzenak egindako esku-hartzeetan oinarritutako programen erabilera areagotzea eta familia gehiagotan helduekin egiten diren esku-hartzeen efizientzia hobetzea.**
  - *Incredible Years* programen estaldura mantentzea 4 eta 8 urte bitarteko adin txikikoen familietan.
  - *Incredible Years* programen aukerak mantentzea 8 eta 12 urte bitarteko haurren taldeetan.
  - *Safe care* programen estaldura handitzea.
  - *AVI* programen estaldura handitzea.
  - *Egokitzen* programa mantentzea, zaintza banaketa gatazkatsuen kasuan.
  - *Gurasotasun positiboa* programa mantentzea.
  - Unibertsitateekin lankidetzan jarraitzea ebidentzian oinarritutako programak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko, dagoen hitzarmenaren esparruan. Hitzarmen hori ebaluatzea.
- **Haurrak babesteko baliabideen eskaintza indarkeria matxistaren kasuetan.** Adin txikikoei laguntza psikologikoa ematea eta babesgabetasun kasuak haurren zerbitzura bideratzea:
  - Haurrak babesgabetasun egoeran dituzten etxekoei babesa ematen jarraitzea, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren bidez.
  - Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren aktibazioaren jarraipena bermatzea eta egitea, beharrezkoa den kasu guztietan.
- **Villa Saliako lanak amaitzea eta bertako zerbitzuak abian jartzea.** Lanak gauzatzea eta gune berria abian jartzea Haurren Babesgabetasun Egoeran dauden Familiei eta Adin txikikoei Arreta emateko programetako familiekin lan egiteko.
- **Etixerik gabeko pertsonentzako arreta zerbitzuak hobetzea, eguneko eta gaueko udal baliabideetan.**
  - Harrera etxearen eranskina egokitzeko eta emakumeentzako komunak prestatzeko proiektua amaitzea.
  - HESTIA eraikineko lanak amaitzea 2024an ireki ahal izateko.
- **Hiriko kaleetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen arretarako eta horiek hobetzeko programak.**
  - Kalea uzteko dirulaguntzen programarekin jarraitzea, *Bizitegi Programa*.
  - Osakidetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, kaleko egoeran dauden pertsonen osasun mentaleko arreta emateko programa abian jartzea.
  - Bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako zaintza ekosistemak sortzea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

- *Otorduak II* programan 60 leku finkatzea.
- Kaleko egoeran dauden pertsonentzako garbiketa pertsonaleko eta arropako zerbitzuaren programa pilotuari hasiera ematea.
- Gazte atzerritarrei lan aukerak eskaintzea, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Trapezistak, Irauli eta halako programen bidez.
- Kaleko egoeran dauden pertsonak artatzeko giza baliabideak doitzea.
- **Sustapenaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Elkarrekin Lanean* estrategiaren bidez**, aukerak sortzea gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden gazteentzat.
- **Baratzak atontzea bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak bultzatuta, bazterkeria egoeran dauden pertsonen enplegu aukerak eskaintzeko Gipuzkoan abian dauden beste jarduketak batzuekin bat etorritik.

## **BIZITZA BETERAKO PREBENTZIOZKO OSASUN ETA ZAINZA POLITIKAK**

- ***Donostia Lagunkoia*.** Herritarrei programa, betetzen duen gizarte funtzioa eta eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutaraztea. Kirolaren eta adierazpen artistikoen bidez gizarteratzeko programa berria du.
- **Mendekotasun egoeran dauden eta profil konplexua duten adinekoentzako baliabideak egokitzea.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuari jakinaraztea zein izan diren mendekotasun mota horiei buruz egindako ikerketaren emaitzak, gizarte elkarriketa irekitzea, arautegi aldaketak eta kontratu berriak proposatzea.
- **Adinekoen etxeko arreta hobetzea.** Etxeko laguntza sendotzea, pertsona zaugarriari arreta emateko tresna estrategiko gisa:
  - Zerbitzuaren estaldura % 100ean bermatzen jarraitzea.
  - Epe luzerako zaintza proiektuaren emaitzak aztertzea.
  - Zerbitzua hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen neurriak abian jartzea planifikatzea, beste erakunde batzuekin lankidetzan.
  - Koordinazio soziosanitario egokia mantentzea, Osakidetzarekin lankidetzan.
- **Gizarte ostatueta dauden adinekoentzako arreta hobetzea.** Zerbitzuko udal araudi berria egitea, onartutako lege berrietan ezarritakoa kontuan hartuta:
  - Udal araudi berria onartzea.
  - Finkatutako prezio publikoen eskaintzarako azterketa egitea.
  - Gogoeta prozesu bat sustatzea, adineko pertsonen ostatu ematen dieten udal baliabide guztietan antzeko zerbitzuak emateko.

- SIIIS zentroaren azterketak egindako proposamenetako batzuk kontratazio berrietan txertatzea (informazio erabilgarriagoa eta eraginpeko pertsonen beharretara egokitua lortzeko moduak; profilak ondo mugatzea eta arreta eskaintza benetako beharretara egokitzea).
- **Erretiratuen klubetako lokalen baldintzak hobetzea eta etxe lagunkoiaren eremuan aurrera egiten jarraitzea.** Irisgarritasuna, erosotasuna eta eskuragarri dauden eremuak hobetzea, hurbileko zerbitzuak eskaintzea eta ebaluazio irizpideak ezartzea. Azken legegaldian horietako bietan lan egin da, eta lau daude berritzeke:
  - Zabaltza erretiratuen kluba, Gros auzoan, egoitza berria erostea eta egokitzea. Lokalaren erosketa amaitzea, Ondasun Departamentuarekin lankidetzan.
  - Erdialdeko erretiratuen kluba: lokala handitzeko eta osorik eraberritzeko proiektua gauzatzea.
  - Antigua auzoko erretiratuen etxea atontzea. Ile apainketako zerbitzua lekuz aldatzea; jantokiko mahaiak eta aulkiak zaharberitzea eta aldatzea.
  - Kaialdeko erretiratuen zentroa, Alde Zaharrean. Lokala handitzeko eraberritzea eta irisgarritasuna hobetzea.
  - Añorgako erretiratuen etxerako irtenbidea aurkitzea.
- **Erretiratuen elkarteei babesa ematea batzarrak berritzeko prozesuan.** Aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea zaharberitze prozedurak aztertu eta bideratzeko eta, hartara, elkarten biziraupena eta funtzionamendua bermatzeko.
- **Elkarte jarduerak garatzeko dirulaguntzak izapidetzeko epeak hobetzea.** Udal mailan epeak laburtzea erabakitzea eta prozedura berri bat adostea Gizarte Ekintza, Herritarren Partaidetza eta Esku-hartzearen artean.
- **Hirian elkarte jarduerak garatzeko lokal berriak sortzea.** Hirigintza jarduketaren berrietan kokatutako espazioak planifikatzea.
  - Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko aurreikusitako prozesuan dauden premien berri ematea.
  - Elkarte izaerako ekitaldi bereziak egitea. Elkarteekin batera planifikatzea eta ekitaldi horiek egiteko udal sailek eskaintzen dituzten guneen aukerak aztertzea.

## **DONOSTIAKO FAMILIEN ETA GAZTEEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO POLITIKAK**

- **Amatasuneko/aitatasuneko lehen urteetan laguntzea.** Familiei babesa emateko eta amatasun/aitatasunaren lehen urteetan laguntzeko sare komunitarioen zerbitzua (haurren hezkuntzarako “tribua” sortzearen kontzeptua garatzea – baliabideen informazioa, izapideak, prestakuntza...).
- **Kontziliazioan lagunduko duten ekintzak sustatzea.** Goizeko Zaintza, auzoetan udalekuen eskaintza zabaltzea opor garaian.



- **5 urteko haurrentzako zerbitzuak zabaltzea Haurtxokoetan.** Haur Parkea sortzea – jolas libreko haur parke publikoa.
- **Eskolako Mugikortasuneko Plana abian jartzea.** Donostia da eskola-mugikortasuneko ekintza plana garatu duen Estatuko lehen udalerrria.
- **Ikastetxeetan patio inklusiboak eta estaliak ezartzea,** ikastetxeekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.
- **Ikastetxeetako jolastokietako ordutegia zabaltzea, nahitaez kirolekoak ez diren jolas libreetarako (eta/edo zuzendutako jardueretarako).**
- **Haurrentzako parkeak jartzeko gune estaliak aztertzea.**
- **Gazteria Zebitzua.** Gazteria Zerbitzua indartzeko jarduerak, honako jarduera ildo hauetan:
  - Gazteei lotutako jardueretarako laguntza eta dirulaguntza guztiekin jarraitzea.
  - Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzarekin lankidetzan, bulego bat sortu eta abian jartzea, gazteen emantzipazio prozesuan laguntzeko. Lege eta administrazio aholkularitzako zerbitzuekin, etxebizitza bat eskuratzeko prozesuetarako eta emantzipatzeak dakartzan baldintza guztietarako.
  - Ikastetxe eta unibertsitateekin lankidetzan, herritarren partaidetzarako dinamika berriak sortzea gazteentzat, honako gai hauetarako: ekintzailletza eta berrikuntza, sorkuntza artistikoa eta kultura transmisioa, euskararen gizarte praktika, aisialdiko jarduerak eta gizarte inklusioa, ingurumenaren arloko sentikortasuna eta elkarkidetasuna.
  - Aire zabaleko ekimenak gaitzeko aukera aztertzea, Ingalaterrako *speakers' corner* ekimenaren antzera, musika emanaldiak eta ahozko esku-hartzeak uztartzeko, hiriko espazio publiko jakin batzuetan eta udan, bizikidetzaz zibikoa, plurala, inklusiboa eta eleanitza lortzeko.

## **HERRITARREN SEGURTASUNERAKO ETA BIZIKIDETZA ZIBIKORAKO PREBENTZIO POLITIKAK**

- **Udaltzaingoko langileen kopurua zabaltzea,** erretiroen ondorioz belaunaldiak berritzeko premiei, urtaroaren arabera intentsitatezko beharrian operatiboei eta hedatzen ari den hiri dinamiko baten segurtasun eskaerei erantzuteko.
- **Delitugileen profil berrietara egokitutako polizia ekipamendua eskuratzen jarraitzea.** Jokabide alterazio larriak edo portaera oso erasokorrak dituzten pertsonen profilak hazi egin direnez, Udaltzaingoari egoera horiei aurre egiteko metodo eta material egokiak emango zaizkio (kontrol tekniketari trebatzea, eta defentsarako edo autobabeserako elementu efikazak erabiltzen eta erabiltzen trebatzea, suzko armak edo arma zuriak egoteagatik arriskutsuak diren jardueretan, etab.).
- **Esku-hartzeen segurtasun juridikoa areagotuko duten bitartekoak ezartzea.** Egiten diren esku-hartzei segurtasun juridikoa emate aldera,

agenteen txalekoetan erabilera pertsonaleko kamerak ezartzearen alde egiten dugu.

- **Udaltzaingoaren zentro operatibo berria Ekialdeko barrutian.** Ekialdeko barrutiko zuzendaritza batzordearekin lankidetzan, azterlan prospektibo bat proposatzen dugu, barrutiko polizia etxe bat eraikitzearen eta abian jartzearen bideragarritasun operatiboari eta aurrekontuari buruz. Polizia etxea Morlansko Zentralaren mende egongo litzateke antolakuntzari, operazioei eta administrazioari dagokionez.
- **Sexu erasoen biktimei berehalako arreta ematea, etxean zein eremu publikoan.** Agenteen prestakuntza espezializatuarekin jarraitzea eta poliziaren erantzun azkarreko eta sexu erasoen biktimei berehalako arreta emateko protokolo espezializatua sendotzea. Horretarako, protokolo bat aktibatzea, gaueko aisialdiko establezimenduekin lankidetzan.
- **EBA – Emakumeen babesa.** Etxeko indarkeriarekin eta genero indarkeriarekin zerikusia duten delituak batera behatzea, aztertzea eta zaintzea. Euskal poliziaren sare informatikoa sendotzea, indarkeria matxistaren kasuen jarraipena eta kontrola egiteko (Udaltzaingoa eta Ertzaintza).
- **Herritarren segurtasunerako guneak.** Prebentzio politikako berehalako ekintzak detektatzea, aztertzea eta aplikatzea herritarren segurtasuneko balizko puntu beltzetan. Arrisku edo segurtasunik gabeko egoerak konpontzeko beharrezkoa balitz, Eusko Jaurlaritzako Bideozaintza eta Askatasunen Batzordeari txostena eskatuko litzaioke bideokameren bidez lortutako irudien eta soinuen erregistroaren erabileraren legezko printzipioetara egokitzeari buruz.
- **Ertzaintzak Donostian dituen ertzain etxeekin lankidetzako operatiboko dinamikak eta prozedurak areagotzea,** batez ere honako arlo hauetan:
  - Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko Tokiko Segurtasun Batzordearen bilera sistematizatuak.
  - Euskal Poliziaren herritarrak babesteko ohiko operatiboaren efikazia eta efizientzia.
  - Herritarren segurtasun eta babeserako premia zehatzak, jende asko pilatzen den garai eta egoeratan, jai, kultura, gizarte edo kirol ekitaldietan.
  - Unean uneko patruila zerbitzu eta segurtasun ekintza operatibo partekatuak aktibatzeak aukera eta komenigarritasuna.
  - Poliziak komunitatearen zerbitzura egiten duen lanari buruzko ezagutza eta sentsibilizaziorako kanpainak.
- **Herritarren babes larrialdia artatzeko ibilgailu mugikorak.** Tresneria tekniko eta ergonomiko egokia duen furgoneta berri bat erostea eta zaharberritzea, herritarrak hurbiltasunez artatzeko, atestatuak berehala kudeatzeko eta salaketak aurkezteko.
- **Polizia agenteak hautatzeko, prestatzeko eta sartzeko prozesuak hobetzea, Udaltzaingoaren betebeharretan sartzeko prozesuak efikazagoak eta efizienteagoak izan daitezzen.** EUDEL eta Polizia eta

Larrialdietarako Euskal Akademiarekin aztertzea nola hobetu eta bizkortu daitezkeen prestakuntza eta sartze prozesuak.

- **Bizikidetzarako bide segurtasunari eta etika zibikoari buruzko prestakuntza.** Udaltzaingoarekin, Ertzaintzarekin eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeekin lankidetzan, Bide segurtasunaren eta Hezkuntza Etikoaren arloko prestakuntza moduluak sortzea eta zabaltzea, bizikidetzaz zibikoa lortzeko.
- **Herritarrak kontzientziatzeko kanpainak sustatzea,** herritarren babes eta segurtasunerako eta delitu arriskuen aurrean erantzun proaktiboa emateko.
- **Herritarrak kontzientziatzeko kanpainak sustatzea, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzarekin, Ertzaintzarekin eta beste udaltzaingoekin lankidetzan,** hiriko zirkulazioak talde zaurgarrienei dakartzkien arriskuei buruz, batez ere oinezkoiei, txirrindulariei, patineten erabiltzaileei eta motorzaleei dagokienez.
- **Segurtasun eskuliburuak egitea kolektibo espezifikoentzat, hala nola gazteentzat, adinekoentzat, etorkinentzat eta beste kolektibo zaurgarrientzat,** inplikaturako udal sailekin, Ertzaintzarekin eta zerikusia duten beste instantzia batzuekin lankidetzan.
- **Udaltzaingoaren ibilgailuak, material tekniko aurreratua eta baliabide operatiboak programaturako moduan berritzea.** Aurrekontuen urteko programan ekitaldi bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren baliabideak jartzea.
- **Prestakuntza espezializatua.** Delitu modalitate konplexu berrien aurrean, hala nola ziberdelituen kasuan, horri buruzko lantalde espezifiko bat sortzeko aukera planteatzea.
- **Erakundeen eta poliziaren arteko koordinazioa “litroak egitearen” arazoari aurre egiteko,** hori gertatzen den hiriko guneeetan eta kroniko bihurtzeko arriskua dagoen guneeetan, hala nola Portuan.

## **BABES ZIBILEKO ETA LARRIALDIEN KUDEAKETAKO PREBENTZIO POLITIKAK**

- **2016ko Udaleko Larrialdi Plana berritzea.** Edozein larrialdi egoera larriari erantzuteko tresna da.
- **Berehalako erantzuna emateko prozedurak ezartzea departamentuen artean,** gizakiaren esku-hartzeak, arrazoi naturalek edo akats tekniko edo teknologikoek eragindako krisi edo larrialdi egoerentzako.
- **Ikerketa eta garapeneko proiektuetan parte hartzea.** Dagoeneko hasita dauden ikerketa eta garapeneko proiektuetan lankidetzan jarraitzea, Horizon programaren baitan, olatuek kostaldean duten eraginari buruz (AZTI), Euskalmet, uretako kiroletan segurtasuna sustatzeko programa...
- **Babes zibileko eta larrialdietako zerbitzuetarako lankidetzaz hitzarmenak.** Larrialdietan parte hartzen duten gainerako agentziekin lankidetzaz areagotzea: DYA, Gurutze Gorria, Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaileak, Udaltzaingoa, Segurtasun Saileko Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritza, Osakidetzako Larrialdiak...

- **Gainerako udal zerbitzuekiko lankidetzaren areagotzea.** Helburua da udal zerbitzu guztien eraginkortasuna, efikazia eta efizientzia hobetzea, larrialdi egoerak konpontzeko, eragindako pertsonak artatzeko eta ahalik eta normaltasun handiena lehenbailehen berreskuratzeko.
- **Aginte Postu Aurreratua berritzea.** Prestazio tekniko aurreratuak dituen ibilgailu berri bat erostea, egungoa ordeztzeko eta larrialdi egoerak *in situ* kudeatzeko gaitasun operatiboak hobetzeko.
- **Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Estrategikoa eguneratzea,** zerbitzuaren eskumen eta gaitasun operatiboak eguneratzeko eta etengabe hobetzeko.
- **Baso suteen aurkako plana.** Baso suteen aurkako plana eratzea lgera eta Uliarako eta, oro har, hiriko parke guztietarako.
- **Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko langileen egungo langileen bitarteko izaera murriztea.** Dagokion lan eskaintza publikoa abian jartzea 2023an.
- **Laneko Arriskuak Murrizteko Plana eguneratzea eta** salbamenduko eta larrialdietako esku-hartzeetan **aplikatzea.**
- **Uretako erreskateak.** Larrialdi eta salbamendu zerbitzuek uretako ingurune eta guneetan egiten dituzten esku-hartzeetan taktika operatiboaren prestakuntza hobetzea.
- **Herritarrentzako jakinarazpenak.** Herritarrentzako jakinarazpen prozesu eta prozedurak hobetzea, bai larrialdi egoeratan, bai interesgarritzat jotzen diren prebentzio eta dibulgazio ekintzetan. Mezularitza eta sare sozialen erabilera optimizatzea.
- **Etengabeko lankidetzaren eta koordinazioaren Gipuzkoako Foru Aldundiko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuarekin.** Helburu nagusia protokoloak eta metodologiak bateratzea da, Donostialdeko premien osagarriak izango diren erantzun bateratu eta koordinatuak berregokitzeko, etorkizuneko Aritzetako parkean foru zerbitzuaren kokapen berria martxan jartzen denetik aurrera.
- **Udal eraikinak babesteko plana eguneratzea.** Udal eraikinen autobabeserako planak eguneratzea eta osatzea.
- **Udaltzaingoaren ibilgailu operatiboaren flota erostea eta mantentzea.** Azken legegintzaldietan aurreikusitako inbertsio plana gauzatzen jarraitzea, herritarren babeserako eta segurtasun publikoko zerbitzuetarako ibilgailu eta baliabide material egokiak izateko, alokairuko modalitatean.
- **Deskontaminazio eremua izango duen nabe bat eraikitzea,** Garberako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko parkerako. Parkearen egungo edukiera handitzea, dauden premiak jaso ahal izateko.

## MEMORIA HISTORIKOA ETA GIZA ESKUBIDEAK

- **Giza eskubideekiko konpromisoa duen hiria da Donostia.** Arlo horretan lan egiten jarraitzeko konpromiso irmoa dugu, Donostia mundu osoan erreferentzia izan dadin giza eskubideen babesean.

- **Hiriaren historian giza eskubideak urratzearekin zerikusia duten memoria historikoaren ibilbideak diseinatzen, kokatzen eta berritzen jarraituko dugu,** horien zabalkundea errazteko eta herritarrei haien ezagutza zabaltzeko.
- **Konpromisoa hartzen dugu ekimen pedagogikoak garatzen jarraitzeko,** hiriaren historian Giza Eskubideen urraketaren memoria kolektiboa zabaltzeko, hiriko ikastetxeekin lankidetzan, haien hezkuntza curriculumari egindako ekarpen gisa.
- **Konpromiso sendoa dugu motibazio politikoko indarkeriaren biktima guztiak elkarlanean aritzeko,** haien oroimena ohoratzeko, hirian giza eskubideen urraketaren oraintsuko oroitzapen plaken ibilbidea osatzeko eta bizikidetzan justu eta erreparatzailearen etorkizunerako oinarri sendoak ezartzeko.
- **LGTBI+ kolektiboaren eskubideak.** Lanean jarraituko dugu gure gizartearen ekintza homofoboak, transfoboak eta LGTBI+ kolektiboaren eskubideak urratzen dituztenak errotik kentzeko. Udalaren departamentu arteko koordinazioaren bidez egingo dugu, Euskal LGTBI+ Behatokia, Berdindu, Gehitu, Eraberean, Ertzaintza eta Udaltzaingoarekin lankidetzan.
- **Donostia, hiri berdinzalea.** Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa lortzeko helburu argiarekin, berdintasunaren arloan lanean jarraituko dugu, Udaleko lan arlo guztiak, Udaleko gobernua eta hiriko egunerokotasuna zeharkatzen baititu. Hartara, politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeaz eta udal langileen prestakuntza indartzeaz gain, beste arlo batzuetan lanean jarraituko dugu:
  - Emakumezkoen kirola; Donostia erreferentea da, eliteko 9 talde baititu.
  - Sexu eta genero indarkeriaren aurkako borroka, puntu beltzak ezabatuz, prebentzioa eta sentsibilizazioa bultzatuz, kasu bakoitza salatuz eta biktimei laguntza eta babesa emanez.
  - Emakumeen enplegua sustatzea.
  - *Emakumeen Etxea* Amara kaleko egoitza berrira lekualdatzea, udal orubean egin beharreko hurrengo hirigintza garapenaren behealdeetan.
  - Kalitatezko enpleguaren aldeko apustu irmoa.
  - Emakumeen figuraren berreskuratze historikoa.



#### **4. DONOSTIA, HIRI GARAPENA, NATURA INGURUNEA ETA INGURUMEN JASANGARRITASUNA ERRESPETATZEN DITUEN HIRIA**

## ETORKIZUN PARTEKATUA

Donostiak, Euskadiko gainerako udalerrien moduan, garapen jasangarriaren ikuspegitik heldu behar dio etorkizunari. Izan ere, beharrezkoa da gure ondoren etorriko diren belaunaldien etorkizunarekin konprometitzea, ditugun baliabide naturalak babestea eta hori gizarte politika indartsuaren babespean egitea. Horretarako, beharrezkoak dira lidergo gaitasuna eta jasangarritasunaren hiru zutabeak jorratuko dituen estrategia politikoa: ekonomia, ingurumena eta gizarte politika.

Hiri jasangarria denez eta ingurumen naturalarekiko errespetua duenez, Donostiak etengabeko ahalegina egiten jarraituko du, garraio publikoa, ibilgailu pribatuaren erabilera efikazagoa eta arrazionalagoa eta mugikortasun elektrikoa sustatzeko eta hartara CO<sub>2</sub> emisioak eta kutsadura atmosferikoa murrizteko.

Hiritarrek dagoeneko hirian oinez (% 45,7) edo bizikletaz (% 4,4) mugitzeko ohitura ona dute. Gainera, epe laburrera, TOPOaren linea berria izango dugu, eta hiriko 9 geltokien artean 7'30"-ko zerbitzu maiztasuna izango du. Gainera, RENFEren aldiriko zerbitzuen transferentzia eta hiriko geltokien modernizazioa ere izango ditugu, abiadura handiko trenaren (AHT) zerbitzuak iritsi arte.

Hori guztia egiteko, datuak etengabe behatu, monitorizatu eta aztertu beharko ditugu, gaur egun abian dauden garraio publikoko zerbitzuak berrantolatu eta berrituratzeko: dBus, Lurraldebus, metropoliko eta hiriarteko hautazko lineak, eskola garraioa, Eusko Trenbide Sarea (ETS), RENFEko aldiriak, taxi zerbitzua (eta horiek nahitaez hobetzea) eta abar.

Hiriko eta hiriarteko bidegorrien sarea zabaltzeko eta hobetzeko lanean jarraituko dugu, Aldundiarekin eta inguruko udalerrieekin lankidetzan, bizikletaren erabilera zabalagoa sustatzeko, auzo guztietara zabalduko dBizi zerbitzuaren bidez.

Eraikin publikoetan eta etxeetan energia efizientzia sustatuko dugu, teknologia jasangarriak erabiliz eta diruz lagunduz, eta egungo erabilera eta ohitura batzuk ekonomia zirkularreko eta energia efizientziako kudeaketa metodo jasangarriagoetara eraldatuz.

Hondakinen sorrera murriztetik hasi eta ingurumen hezkuntzara eta gure jarduera pertsonal eta kolektibo batzuek arnasten dugun airearen kalitatean, gozatzen dugun naturan eta gure osasunean duten eraginari buruzko kontzientzia kolektiboa hartzera arte.

Itsasoko eta kostaldeko ingurune naturala ere aztertu eta hobeto babestuko dugu, eskumena duten administrazio guztiekin lankidetzan.



## **HIRIGINTZA PROIEKTU BERRIAK ETA HIRI MUGIKORTASUNeko ETA HIRIARTEKO MUGIKORTASUNeko PREMIA ETA ERABILERA BERRIAK**

- **Urumearen Ardatzeko hirigunea berreskuratzea eta balioa handitzea.** Bokaletik hasi eta Astigarragako mugetaraino, Urumea ibaia aurrekaririk gabeko berreskuratze eta birgaitze plan batean sartuta dago, eta, horri esker, bere ingurune naturalaz eta kirola eta aisialdi jarduerak egiteko eskaintzen dituen aukerez gozatu ahal izango dugu.
- **Hirigintzako eta arkitekturako ideien nazioarteko lehiaketen deialdia,** hiria berreskuratze, berrantolatze edo hedatzeko beharrak hobekien islatzen eta jasotzen dituzten proiektuak definitu eta hautatzeko:
  - Sagues inguruko hiri berreskuratze integralean.
  - Easo Plazaren urbanizazio integralean eta gaur egun Eusko Trenbide Sarearen (ETS) geltokiko trenen sarbideek eta irteerak hartzen duten hiri espazio osoan.
  - Gaur egun Loiolako kuarteletan dauden lurrak urbanizatzeko eta berrerabiltzeko proiektu integralean, hiriko bizitegi eta zerbitzu eremu berri gisa.
- **TOPOaren linea berriko geltokien lanak amaitzea eta irekitzea Donostian zehar.** Lur azpiko trazadura abiarazteak eta hirian tren zerbitzu berrirako sarbide geltokiak zabaltzeak honako hauek izango ditu etorkizun hurbilean:
  - Geltoki zaharberritua Anoeta estadioaren plazan.
  - Easo Plazako lur azpiko geltoki berria.
  - Lur azpiko geltoki berria Londres hotelaren atzean.
  - Lur azpiko geltoki berria Antiguako Benta Berri plazan.
  - Trazadura berriari egokitutako geltokia Lugaritzen.
  - Errekalde auzoko geltokia bi lineentzat (Hendaia/Bilbo eta Hendaia/Lasarte-Oria).

TOPOaren konfigurazio berri horri esker, hiriko barne zirkulazioa eta hiriko zein hiriarteko garraio publikoko zerbitzuak berrantolatu ahal izango ditugu, eta ibilgailu trafikorik gabeko oinezkoentzako ingurune berriak berreskuratu eta urbanizatu ahal izango ditugu, kultura eta aisialdi jardueretarako eta tokiko merkataritza sustatzeko.

- **Etorkizunean Eusko Trenbide Sarea (ETS) eta RENFE Aldirikoen arteko aldageltokia eraikitzea Loiolako Erriberak auzoan.** Hirian TOPOaren linea berriaren zerbitzuak martxan jarri eta handitzeko, etorkizunean, Eusko Trenbide Sarearen (ETS) tren zerbitzuen eta Adif-RENFEren aldirietako lineen aldageltokia eraikiko da. Hiri barruko eta hiriarteko mugikortasuna hobetzeko beste urrats bat, ingurumenaren jasangarritasunari eta hiriaren eta lurraldearen arteko herritarren zirkulazio erosotasunari buruzko irizpideekin.
- **TOPOaren trenbidearen egungo trazaduraren gaineko jarduketak, Loiola-Errondo pasealekua tartean.**

- Anoetatik Errondo pasealekuraino doan zatian Topoaren bideen trazadura lurperatu dadila bultzatzea.
- Trenbide zirkulazioak Anoetatik Eusko Trenbide Sarearen (ETS) eta RENFE aldirietako lineen aldageltokiraino doan tartean sortzen duen soinu inpaktua minimizatzeko neurriak bultzatzea, soinu hesiak ezarriz.
- **Lurpeko autobus geltokiaren eta Norteko geltoki berriaren hiriarteko garraio ardatza berriro itxuratzea eta berrurbanizatzea, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren ingurunearen ondoan:**
  - **Norteko geltoki berriaren ingurua urbanizatzea**, igarotze geltoki izan dadin RENFEko aldirietako trenen bidaiarientzat (Eusko Trenbide Sarera transferitzeko fase aurreratuan dago) eta etorkizunean Astigarragan egongo den Abiadura Handiko Trenaren (AHT) geltoki intermodalera sarbide lotura zerbitzua eskaintzeko bertatik igarotzen diren bidaiarientzat.
  - **Sarrera eta irteera sarbideak berrurbanizatzea** pertsonentzat eta ibilgailuentzat gaur egungo hiriarteko autobus geltokian.
  - **Espazio publiko berri bat sortzea berdegunearekin eta gizarte gozamenerako eta kultura jarduerarako oinezkoentzako gunearekin Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan (*Tabakalera Parkea*)**. Eremu horri esker, Urumearen ibarra suspertu ahal izango da, gizarte bizikidetzarako gunea berria izango da eta hiri espazio berri horri esker era naturalean joan ahal izango da hiriaren erdigunetik Egia auzora, Mundaiz kalera eta Kristina Enea parkera.
- **Hiri Mugikortasun Jasangarri Plana**. Plana egin eta onartu ondoren, hiri mugikortasunaren arloan aurreikusitako aldaketak eta hobekuntzak sozializatuko dira eta oinezkoentzako gunek prestatuko dira.
- **Garraio publikoko sare berria**, Donostiako hiri garraioa integratu, berrantolatu eta arrazionalizatzeko. dBus zerbitzuak, hiriko garraio publikoko eragile nagusia den heinean, integrazio eta berrantolaketa prozesu hori zuzenduko du, Lurraldebus, Euskotren eta RENFE zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeekin lankidetzan. Prozesu bateratua izango da, epe ertainekoa, eta hiru mugarri nagusi izango ditu: hirian Topoaren geltoki berriak abian jartzea, RENFEren aldirietako zerbitzuen transferentzia (oso litekeena) eta AHTari lotura.
- **Garraio publikoko sarea Eskuzaitzeta industrialdera hedatzea**. Foru Aldundiaren laguntzaz, garraio publikoko sarea hedatzea, industrialdeko langileei garraio zerbitzua emateko.
- **GI-20 errepidearen saihezbidea berriz diseinatzea hirian zehar**. Gipuzkoako Foru Aldundiari bideragarritasun azterketa eskatzea, Loiola auzoaren eta Loiolako Erriberen artean hiria zeharkatzen duen GI-20 errepidearen ibilbidea berriz zehazteko. Bitartean, zarataren aurkako panelak eta hesiak jartzea eskatzea ibilbidean zehar esposizio handiena duten guneeetan.
- **Hiriko taxi zerbitzuaren eta VTC ibilgailuen lizentzien arteko bateratze proiektu baten azterketa**. Gaur egungo hiriko taxi eskaintza eguneratzea, berriz diseinatzea eta zabaltzea, erabilera eta premia berriei erantzuteko; gaur egun lizentziak dituzten jabeen eta sektoreko ordezkarien partaidetza zuzena

izango du, eta Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko gainerako udalen inplikazioa ere bai.

- **Garraio bertikala sustatzea.** Proiektu berriei aurre egitea desnibel orografikoak dituzten auzo eta bizitegi guneetan irisgarritasuna errazteko, mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonentzat zaila baita handik igarotzea, besteak beste:
  - Heriz pasealekua
  - Altza-Herrera-Larratxo
  - Arriola, Añorga Txiki
  - Egia-Konkorrenea

## **BIZIKLETAZ MUGITZEAREN KULTURA ETA BIDEGORRI SAREA.**

- **Bultzada berria bizikleta garraibide gisa erabiltzeari:**
  - dBizi alokairuko bizikleten zerbitzuak ezartzeko bigarren fasea. Zerbitzugune berriek berehala erantzungo diete hiriaren ekialdeko eta Añorga auzoko beharrei. Pixkanaka ezarriko dira, hurrengo urteetarako aurreikusita dauden bizitegiatarako hiri hedapenekin bat etorritik.
  - TOPOaren etorkizuneko geltokietan bizikletak aldi baterako aparkatzeko gune edo lokal zehatzak prestatzeko modua bilatzea.
  - Benta Berriko geltokian lehendik dagoen lokal bat gaitzea aurreikusten da, TOPOaren geltoki berri horren erabiltzaileek beren bizikletak aparkatzeko aukera izan dezaten.
- **Bidegorri sarea zabaltzea.** Bidegorri sarea zabaltzea, eta araudiaren eta segurtasunaren seinale horizontalak eta bertikalak hobetzea, txirrindularien, oinezkoen eta ibilgailuen arteko bizikidetza errespetuzkoa, eroso eta segurua izan dadin. Laster gauzatuko diren proiektuak:
  - **Bidegorri zubi berri bat Urumea ibaiaren ibarrean.** Proiektu ikoniko honek ibaiaren berreskuratze prozesua sinbolizatuko du, hiri birgaitzearen eta hiri hazkundearen foku gisa, eta kirol jarduera jakin batzuetarako gune ireki, gizartearen elkargune eta naturaz goatzeko leku gisa.
  - **TOPOaren trazadura zaharreko tunela berreskuratzea** Herrera eta Loiola auzoen artean, bidegorrien sarea handitzeko eta osatzeko. Horrela, lotune berri bat sortuko da Loiolako auzoaren eta Herrera, Altza eta Intxaurren artean.
  - **Boulevardaren eta Erregina Erregeordearen kalearen arteko bidegorria berriz diseinatzea eta Zurriolarantz zabaltzea.** Helburua da Bretxako merkataritza gunearen parean dagoen zatia saihestea eta Kursaalera zubia zeharkatzen duen zatia hobetzea, Zurriolako bidegorriarekin behar bezala lotzeko.
  - **San Martin eta Zubieta kaleen arteko zatia osatzea,** Foruen pasealekuko bidegorriarekin lotu arte.
  - **Martuteneko bidegorria.** Martuteneko zubia eta Tranbia kalea lotzeko falta den zatia osatzea.

- **Kontxako bidegorria berritzea** tuneletik Antigua aldera doan zatian.
- **Altzako bidegorria.** Herrerako pasealekua eta Txirrita Bertsolariaren kalea lotuko dituen bidegorri zatia sortzea, Jolastokietaren garapen berriarekin.
- **Ondoko udalerriekin lankidetzak bideak aztertzea**, hala nola Lasarte-Oriarekin, Lezorekin, Pasaiarekin edo Astigarragarekin, bidegorrien eraginkortasuna hiriarteko eremuetara zabaltzeko.
- **Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (MPlak, motor elektrikodunak nahiz motorrik gabeak).** Trafikoari eta Bide Segurtasunari buruzko 2022ko Legeak eta Mugikortasun Sailaren ebazpenak ezarritakoa aplikatzea. Ibilgailu horien erabileraren bilakaera eta erabilera berea arautuko duen behin betiko ordenantza onartu arte sor daitezkeen arazoak aztertzen jarraituko dugu.

## OINEZKOENTZAKO HIRI EREMUAK

- **Dagoeneko egikaritze fase aurreratuan dauden kaleak oinezkoentzat egiteko obrak amaitzea.** Artzain Onaren inguruan, Loiola kalearekin, Getaria kalearekin, Gipuzkoa Plazarekin eta inguruko eremuekin bat egiten duen tokian.
- **Oinezkoentzat jarriko diren eremu berriak.** oinezkoentzako gune eta ibilbide zabalagoak diseinatzea eta egokitzea TAO inguruneetan, hiriko hainbat eremutan bizikidetzak komunitarioko eremu zabalak sortzeko, hala nola Gregorio Ordoñez. Irungo plaza eta Miserikordia kaleetan.
- **Airearen kalitatea zehazten duten aldagaiak monitorizatzea eta horien informazio publikoa ematea,** Eusko Jaurlaritzaren 2030eko Euskadiko Kutsadura Atmosferikoaren Plana zuzentarauan ezarritako osasungarritasun eta iraunkortasun irizpideak kontuan hartuta.
- **Hots kutsadura murrizteko zuzenketa neurriak.** hirian hots kutsadura jasaten duten eremuak identifikatzea eta monitorizatzea, eta antzeko arazoak dituzten beste hiri batzuetan jardunbide egokien eta konponbide teknikoaren erreferentziak bilatzea, betiere erakunde eskudunekin lankidetzan, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

## ETENGABEKO ARRETA KLIMA ALDAKETAK GURE INGURUAN ERAGINDAKO ONDORIOEI

- **dBus, autobus publikoen pixkanakako elektrifikazioa,** 2030etik aurrera autobusen zero CO2 emisioei buruzko EBren jarraibidea betetzeko, eta Udalaren beste elementu motordun batzuen elektrifikazioa.
- **EIB proiektuan inbertitzea eta hura gauzatu eta martxan jartzea.** Proba pilotu bat egingo da 17. linearen zerbitzuan, hau da, Gros auzoa eta Donostialdeko ESko ospitale eremua, Onkologikoa, Poliklinika eta Miramongo parkearen ekialdea lotzen dituen linearen zerbitzuan.
- **Automobil elektrikoak kargatzeko guneak.** Hiriko aparkaleku publikoetan automobil elektrikoak kargatzeko guneak planifikatzea eta pixkanaka martxan jartzea.

- **Emisio Baxuko Eremua (EBE):** martxan jarri eta pixkanaka aurrera egitea, Legeak Emisio Baxuko Eremuak zehaztu eta ezartzeko eskatzen dituen ezarpen helburuak lortu arte.
- **Klima aldaketaren behatokia.** Klima aldaketaren tokiko ondorioen etengabeko behatoki iraunkorra, natura ingurunekeo floran eta faunan eta Donostiako itsasertzean.
- **Ingurumena babesteko kontzientziazio kanpainak.** Gure ibaien, gure hondartzaren eta gure itsasertza bustitzen duten uren kutsaduraz kontzientziatzeko eta kutsadurari eusteko neurriak, **ITSASOS – Itsasoa hemen hasten da / El mar empieza aquí** azken kanpainaren ildoari jarraituz.
- **Loiolako Kapueneko harrobien kolektorea (HUA) modu funtzional eta eraginkorrean hobetzeko proiektua.** Arlo horretan eskumena duten Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako instantzia guztiekin lankidetzan, Kapueneko kolektore nagusia (HUA) hobetzeko proiektu bat adostea, hondakin urak arazteko teknologia berriak sartzeko eta instalazioak modernizatzeko, betiere hondakin urak tratatzeko behar guztiei (bizitegiei eta industrialei) ahalik eta zerbitzurik egokiena ematen jarraitzeko.
- **Altzako Roteta auzoko saneamendu kolektoreak berritzea.** Gobernu Batzordeak 2023ko apirilaren 18an onartutako saneamendua hobetzeko obren lehiaketa lizitatzeko eta obra horiek egitea. Aurrekontua 3,1 milioi eurokoa da eta 21 hilabetetan egitea aurreikusten da. Kolektoreak hobetzeko obren baitan, bi sare bereizi sortzea aurreikusten da, bat ur beltzetarako eta bestea ibai uretarako, drainatze sistema eraginkor eta iraunkorragoak abian jarrita, euri handiko fenomeno meteorologikoei hobeto aurre egiteko.
- **Urumea ibaiaren ibarra ingurumenaren aldetik berreskuratzea** Martutenetik bokaleraino, Urumea ibaia eta bertako eremu publikoak biziberritzeko plan integralarekin batera.
- **Hondakinen bilketa eta kudeaketa.** Hondakinen gaikako bilketaren gaur egungo mailak hobetzeko eta areagotzeko neurriak, eta neurri horiek hondakinak prebenitzeko, birziklatzeko, berrerabiltzeko eta ekonomia zirkularreko jardunbideetako politiketan izango duten eragina. Edukiontzia espezifiko gehiago jarriko ditugu ostalaritzan eta etxebizitzetan sortzen ditugun hondakin organikoekin birziklapena sustatzeko.
- **2024 – Zaborrak biltzeko 2 kamioi elektriko berri gehitzea.** Kamioiak EBren Next Generation funtsen finantzaketarekin erosiko dira. Ibilgailuen elektrifikazioarekin murriztu egingo da gaur egungo kamioiek sortzen duten zarata, bereziki gauez.

## HIRI ONDAREA ETA PAISAIA ETA NATURA INGURUNEA KONTSERBATZEA

- **Mantentze-lanen arloko lizitazio garrantzitsu guztiak abian jarri.**
  - Parkeak eta lorategiak, garbiketa, argiteria eta zaborrak.
  - Kontratuen prezioak eta baldintzak eguneratzea, mantentze-lanen hobekuntza orokorra lortzeko.

- **Obren eta mantentze-lanen plangintza eta betearazpena hobetzea.** Eragindako sail guztiekin lankidetzan aritzea da helburua, hiria mantentzeko aurreikusitako jarduerak planifikatzen eta betetzen laguntzeko, eta beharrezkoak ez diren atzerapenak saihesteko.
- **Parkeak eta lorategiak mantentzeko kontratako hobekuntzak hiru proiektu garrantzitsutan oinarrituko dira:**
  - **Landareztatzea,** airearen kalitatea hobetzeko eta CO2 eta beste substantzia kaltegarri batzuen emisioak murrizteko. EBren Next Generation funtsetarako laguntzak eskatu dira hainbat proiektu eta lanetarako, hala nola ikastetxeetako patio inklusiboetarako.
  - **Zuhaitz berriak.** Helburua da bizi zikloaren amaieran dauden zuhaitz zaharrenak ordezte eta adarrak erortzeko arriskua saihestea.
  - **Zoladura drainatzaileak.** Txaparreneko pasealekuan zoladura drainatzaile berrien lehen proba pilotua jarriko da martxan, zuhaitziak hobeto mantentzeko.
- **Mantentze kontratua berritzea, jasangarritasun lanekin lotutako jarduketa guztien plangintzarekin eta erregistroarekin jarraitzeko.** Helburua da diagnostikatutako jarduketa guztiak gauzatzen jarraitzea eta egindako jardueri buruzko informazioa udalaren atari digitalean iraultzea, herritarrek hobeto ezagutu dezaten.
- **Astiñene baserria.** Baserria erosi, birgaitu eta haren ustiapenaren lehiaketa egitea, Urumea ibaiaren pasealekuko oinezkoen zirkulazio ardatzean erreferentzia puntu bihurtzeko.
- **Auditz-Akular eremuaren garapena.** Eremu misto bat sortzea, hiri parke zabal bat eta helburu sozial eta komunitarioetara bideratutako erreferentziazko eraikin bat, eta paisaia ingurune naturala errespetatzen duen hirigintza garapen bat eta eremuaren ezaugarrien araberrako etxebizitza kopuru bat barne hartuko dituen.
- **Hobekuntzak Ametzagañako Parkean.** Loiola eta Intxaurren auzoen artean oinezkoentzako bidea egokitzea eta Ametzagañako parkeko argiztapena hobetzea, neguko ordutegian erabilgarriagoa eta seguruagoa izan dadin.
- **Uliako parkea biziberritzea eta uso tiroketako ostalaritza eta jatetxe zerbitzua berriz irekitzea, lehiaketa publikoaren bidez.** Naturagune babestu izendatzea, horretarako sarbideak, mendi bideak, Donejakue bidearen trazadura, azpiegiturak eta erabilera ludiko edo komunitarioko gune irekiak egokituz.
- **Hiriko itsasertza osatzen duten elementu guztien monitorizatzeko, egokitze eta prebentziozko mantentze-lanak egitea,** klima aldaketak izan ditzakeen ondorioen, itsas mailaren igoeraren eta mareen eraginaren aurrean: Haizearen Orrazia eta Eduardo Chillida pasealekua, Ondarretako eta Kontxako hondartzak, Pasealeku Berria, Kursaleko zubia eta Zurriolako hondartzaren ingurua (Mompaseraino), administrazio eskudunekin koordinatuta.

- **Hiriko parkeetan ariketa fisikoa egiteko eta aisialdirako ibilbide osasungarriak diseinatzea, egokitzea eta seinaleztatzea**, haien jasangarritasuna, xarma eta baliabide naturalak aprobetxatuz.
- **Bide Berdeak sortzea**. Hiriko parkeak eta berdeguneak lotzeko tresna bat da, ibilbide atseginagoen eta naturaren presentzia handiagoaren bidez. Helburua da hiriko eremuak berdatzen eta berdeguneak elkarrekin lotzen lagunduko duen tresna bat izatea.
- **Aizkorri kaleko lorategiak**. Barne Ministerioak 2021ean Udalari lagatako lorategiak integratzea eta ingurunera egokitzea. Doan lagatako 3.870 m<sup>2</sup>-ek Donostiako berdeguneen sarea handitzeko balioko dute.
- **Martxan ez dauden Telefónicako kabinak kentzea**. Erakundeari eskatzea oraindik hirian dauden baina dagoeneko martxan ez dauden telefono kabinak ken ditzala, eta horretan laguntzea.





**5. DONOSTIA, HIRI ADIMENTSUA, DIGITALA, BERE BALIABIDE  
PUBLIKOAK ETA KOMUNITARIOAK EFIKAZIAZ ETA  
EFIZIENTZIAZ KUDEATZEN DITUENA**

## UDALETXE EFIZIENTEA

*Legegintzaldi honetako baliabide ekonomikoen administrazioa egitea zaila izan da, COVID19ak eragindako osasun krisiaren eskakizun disruptiboak direla eta. Aitortu behar dugu gobernu talde osoa eta udaletxeko langile guztiak oso zorrotzak izan direla efikaziari eta efizientziari dagokienez.*

*Bestalde, 2023ko aurrekontuak (461.913.070 €-koa) argi eta garbi islatzen du hiriaren erresilientzia ekonomikoa, baita erabakitasunez egiten ari garen hiria berreskuratzeko ahalegina ere. Pandemia aurreko 2019ko aurrekontuarekin alderatuta, igoera % 10ekoa izan da guztira.*

*2023ko aurrekontuaren % 85 hiriaren eguneroko funtzionamendu egoki eta eraginkorrera bideratuko da. Gainerako % 15arekin inbertsioei aurre egingo diegu, eta aurreko ere EBren Next Generation Berreskuratze eta Erresilientzia Funtsen laguntza eta finantza ekarpena izango dugu. EBren Next funtsekin egin diren edo egiten ari diren proiektuek 53.000.000 €-tik gorako balioa dute.*

*Gastu arruntaren aurrekontutik 33.444.544 € gizarte zerbitzuen politika aktiboetara bideratuko ditugu, eta, horrela, zaintza, elkartasun eta gizarteratze beharrei erantzun ahal izango diegu. 2022an, 5 familietatik batek Gizarte Ekintzak eskaintzen eta kudeatzen dituen zerbitzuren bat eskuratu zuen.*

*Bi adierazle hauek argi eta garbi islatzen dute Donostiako Udaleko gobernu taldeak udal ekonomiaren kudeaketa eraginkorrenekin duen konpromisoa:*

- *Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 16,59 egunekoa da, Legeak ezartzen duen 30 eguneko mugaren oso azpitik.*
- *2022ko aurrekontu itxieran, Donostiako Udalaren zorpetze maila % 19,42koa izan da. Legez baimendutako % 70aren oso azpitik.*

*Zorpetze maila horri esker, Loiolako kuarteletako lurrak erosi ahal izango ditugu, etorkizunean 1.700 etxebizitza eta beste ekipamendu publiko batzuk eraikitzeko.*

*Kudeaketa ekonomikoaren efikaziari eta efizientziari esker, Udalak herritar guztiei eskaini behar dizkien aurrez aurreko arreta zerbitzuak eta arreta zerbitzu telematikoak etengabe hobetuko dira, eta egin beharreko administrazio izapideak erraztuko dira. Arreta berezia eskainiko zaie adinekoei (herritarren % 25) eta gure toki administrazioarekin eguneroko harremanetan zailtasun gehiago izan ditzaketen pertsoniei.*

*Gure asmoa da herritarrei aurrez aurreko arreta eskaintzen dieten leihatila bakarreko 11 zentroak (4 Udalinfo bulego, 7 bulego espezializatu) mantentzea eta hurrengo urteetan arreta telematikoaren esponentzialki handitzea, gaur egungo erabilgarritasun kopurua bikoiztuz (20.000tik 40.000ra) eta Nire Karpeta zerbitzu pertsonalizatuari atxikitzen zaizkion herritarren kopurua handituz.*

## ZERBITZU ETA AURREKONTU PUBLIKOEN KUDEAKETA AURRERATUA, EGUNEROKOTASUNEAN HERRITARREN BIZITZA ERRAZTEN DUTEN BALIABIDEEN EFIKAZIA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEKO

- **Azken bi legegintzaldietan lortutako zorpetze txikiko eta kaudimen handiko mailak mantentzea.** 2022ko aurrekontuaren % 20tik beherako zorpetze maila izanik, errealismoz eta lasaitasunez aurre egin diezaiokegu Loiolako kuartelak erosteko eragiketari (5.000.000 2023an eta 5.000.000 2024an).
- **Bitartekotasuna % 8tik behera murriztea.** 2023an eta 2024an, enplegu eskaintza publiko berriak jarriko ditugu martxan Donostiako toki administrazioko langileen plantilla egonkortzeko.
- **Familia ugarientzako laguntzak zabaltzen jarraitzea, ondasun higiezin gainerako zergan (OHZ) deskontuak eginez.** Udaletik ere jaiotza tasa sustatzeko politiketan lagundu nahi dugu, jaiotza tasa erronka handia baita administrazio publiko guztientzat. Zentzu horretan, OHZren beherapenean aplikatzen diren laguntzak zabalduko dizkiegu lau seme-alaba edo gehiago dituzten familia ugariei.
- **Komunitateentzako energia laguntzak:** gaur egungo ordenantza aldatuko dugu, orain energia efizientziarako obra eta instalazioetarako banaka aplikatzen diren laguntzetan hainbat eraikin edo auzo komunitateri zerbitzua ematen dieten kooperatibak sartu ahal izateko.
- **Udal arloak koordinatzeko bi figura berri sortzea eta izendatzea.** Bi pertsona horiek 2019an sortu zen Zeharkako Zerbitzuen koordinatzailearen lana osatuko lukete, eta udal atalen koordinazioaz eta lankidetzaz arduratuko lirakeke, baita udal proiektu estrategikoak sustatzeaz ere. Legegintzaldi berri honi begira, honako hau proposatzen dugu:
  - *Donostia Zientziaren eta Ezagutzaren Hiri* bihurtzeko helburuarekin zerikusia duten alderdi guztiez arduratuko den lanpostu bat sortzea eta horretarako pertsona bat izendatzea. Bere lana eragindako gainerako erakundeekin eta inplikaturako eragile guztiekin lankidetzan aritzea izango da, baita hiriarentzat interesgarriak izan daitezkeen zientziaren, ezagutzaren eta berrikuntzaren arloko proiektuak abian jartzen laguntzea ere.
  - Sare Komunitarioa kudeatuko duen pertsona bat izendatzea. Bere lana legegintzaldian zehar hainbat auzotan garatu eta sendotu diren ekimen solidarioen parte-hartze kolaboratiboa eta kudeaketa komunitarioa sustatzea izango da, baita partaidetzarako eta elkartasunerako herritarren sare komunitarioa sendotzea ere, lankidetzaren eta erantzunkidetasunaren ikuspegitik. Horrek zeharkako izaera izango du udal jarduerako arlo askotan, eta Gizarte Ekintza eta Herritarren Partaidetza alorretatik sustatuko da.
- **Gaur egun dauden aurrez aurreko arretarako 11 zentroetan herritarrei eskaintzen zaizkien informazio eta izapidetze administratiboko zerbitzuak hobetzen jarraitzea,** eta beste zentroren bat irekitzeko aukera behatzen eta aztertzen jarraitzea, beharrezkoa izanez gero, hedatzen ari diren beste hirigune batzuk jaso eta horiei erantzun ahal izateko. Helburua da administrazio izapideak arintzea, oro har, eta prozeduretan administrazio isiltasunaren erabilera pixkanaka murriztea.

- **Udalaren eta herritarren arteko harremana / HAZI proiektua.** Herritarren Arretarako Zerbitzua etengabe hobetzea da proiektuaren helburua. Zerbitzu integral horrek udal sail guztiak hartzen ditu, Finantza eta Ingurumen Zuzendaritzaren zerbitzu berriak jasotzen ditu (besteak beste) eta tresna telematikoekin osatzen du zerbitzu integral hori, *donostia.eus* atarian, erabiltzaileari bideratutako zerbitzu integralaren ikuspegiarekin.
  - Hurrengo 4 urteetan Herritarren Arretarako Zerbitzuen erabiltzaile informatikoen kopurua bikoiztuko dugu, gutxienez (gaur egungo 20.000etatik 40.000ra).
  - Herritarren artean *Nire Karpeta*ren erabilera sustatuko dugu, pertsona batek udal administrazioarekin mantentzen duen harreman guztia antolatzen duen gune pribatu gisa, herritarrei laguntza telematikoa emateko sistema integralaren baitan.
  - Herritarren arreta integraleko zerbitzuan Herritarren Postontzia aplikazio berria sartuko dugu, haren erabilera errazteko eta informazio gehiago eta hobea jasotzeko.
  - Udal jarduketei buruzko informazioa Herritarren Postontziaren bidez. Herritarrentzako informazio eta erantzun dinamikak hobetzea udal sailetan egiten diren jardueri dagokienez. Auzo elkarteek udal gaiei buruz biltzen duten informazioa Herritarren Partaidetzarako *Auzoz Auzo* bileretan sartzeko, informazioa teknikarien presentziarekin indartuz.
  - Herritarren Postontziaren proiektuak APP bat aurreikusten du; izan ere, aplikazio horren bidez bideratuko dira Udalaren eta hala nahi duten erabiltzaileen arteko harreman telematiko guztiak.
- **Doako zerbitzu publikoen hiri sarea.** Hiriko mantentze zerbitzuetatik, herritarrei erabilera komunitarioko zerbitzu publikoen eskuragarritasunari buruzko katalogo digital eguneratuak eskaintzea (osasun eta farmakologia arretako guneak, WC zerbitzuak, hondakinen gaikako bilketa, auto elektrikoak kargatzeko guneak, aparkaleku pribatu eta publikoak, autokarabanentzako aparkalekuak, etab.).
- Hiri azpiegiturak eta altzariak mantentzeko, kaleak, eraikin publikoak, lorategiak eta parkeak garbitzeko, eta hiri ekipamenduen segurtasuna bermatzeko **zereginen eta lanen plan bat** prestatzea, auzoz auzo.
- **Udal administrazio elektronikoa modernizatzea** eta herritarren beharretara eta nahietara egokitzea, Udalaren eskumen esparruetan legeriak ezarritako betebeharrak eta printzipioekin bat etorrituz.
  - Gardentasuna
  - Kontuak ematea
  - Kode etikoak
  - Iruzurraren aurkako neurrien plana
- **Kudeaketa aurreratuaren eredia.** Udal kudeaketan Kudeaketa Aurreratuaren Eredua bat ezartzea, Gobernu Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako kudeaketa tresna estrategikoetan oinarrituta:
  - Eredua sail bakoitzaren urteko kudeaketa planetara hedatzea.
  - Aurrekontuen kudeaketa, plan horien euskarri gisa.

- Kontuak ematea.
- **Udal artxibo orokorra eta historikoa modernizatzea.** Udal Artxiboa modernizatzeko eta balioztatzeko lanekin jarraituko dugu, azken urte hauetan egin dugunari jarraipena emango dioten hainbat jarduketarekin:
  - Udal Artxiboaren eraikin berriaren kudeaketa aurreratua.
  - Artxiboko (orokorra eta historikoa) funts guztiak digitalizatzeko lanekin jarraitzea.
  - Donostiako Udalaren Dokumentuak Kudeatzeko Politika eta Artxiboaren Udal Sistemaren Erregelamendua onartzea.

## **HERRITARREK HIRIKO ONDARE, KULTURA ETA PRESTAKUNTZA ONDASUNAK EZAGUTZEA ETA HAIETAZ GOZATZEA ERRAZTEN DUTEN BALIABIDE PUBLIKOEN KUDEAKETA AURRERATUA**

- **Museoak eta monumentuak.** Herritarrei eta hiria turismo jarduera gisa bisitatzen duten pertsoneri hiriko museo eta monumentu guztien katalogo digitalizatua eta geolokalizatua eskaintzea, eta horietaz gozatu ahal izateko ibilbide programagarriak sortzea.
- **Kultura etxeak, liburutegiak eta prestakuntzarako eta ikasteko azpiegiturak.** Donostia Kulturaren aldetik, kultura eta hezkuntza azpiegituren katalogo digitalizatua eta geolokalizatua eskaintzea DK-ko bazkide txartela duten pertsoneri, herritarrei eta horien erabiltzaile izan daitezkeen pertsona guztiei.

## **HIRIAREN GOBERNU ONA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA PERTSONEN INTEGRAZIOA ERRAZTUKO DITUEN UDAL BALIABIDEEN KUDEAKETA AURRERATUA**

- **Herritarrek parte hartzeko eredia aztertzea eta hobetzea.** Herritarrek parte hartzeko eredia aztertzea, ereduaren beraren arkitektura eguneratzeko. Helburua da diagnostiko eta irakurketa partekatua egitea, gaur egungo errealitate sozialera egokitzeko eta herritarrek udal gaietan parte-hartze handiagoa izan dezatela lortzeko.
- **Auzoz Auzo programa.** Auzoz auzoko bileren dinamikekin jarraitzea elkarte, auzoko eragile eta auzokideekin. Auzoetako eragileen eta Udalaren artean irakurketa partekatua egitea da helburua. Programan eragile berriak sartzea eta hiru hilean behin auzo bakoitzean bilerak programatzea, horretarako udal azpiegiturak erabiliz, kultura etxeak, adibidez.
- **Aholkularitza eta laguntza ematea.** Auzo elkarte berriak sortzeko, San Martingo auzo elkarte eta Erdian Bizi elkarte (biak hiriaren erdigunean) eta Bidebietako auzo elkarte eratzeko prozesuan egindako lana adibidetzat hartuta.
- **Auzo Mahaiak ekimena.** COVID19aren osasun krisiak dinamika komunitario hori eragin zuen, eta horri jarraipena emango diogu. Auzoko eragileen arteko elkartasun eta laguntza dinamika komunitarioa sortzen du. Amara Berriko eta Loiolako Erriberetako dinamika arrakastatsuak hiriko beste auzo batzuetara zabaltzea.

- **Abian dauden proiektuen jarraipena egiteko bilera irekiak eragindako bizilagunekin.** Helburuak:
  - Bizilagunekin eta elkarteekin horiei eragiten dieten obra publikoko prozesuei buruzko informazio guztia partekatzea, eta horien kexa eta iradokizunen feedbacka jasotzea.
  - Eragindako bizilagunekin planen eta ordenantzen aldaketak partekatzea, eta horien oharrak jasotzea.
  
- **Deszentralizazio eta deskontzentrazio organoekin lankidetzan jarraitzea.** Deszentralizazio eta deskontzentrazio organoekin lankidetzan areagotu dadila sustatzea, organo horien funtzionamendua hobetzeko eta udal administrazioa hiriko eremu horietara hurbiltzeko, hurbilago egongo den administrazio bat sortuz.
  - **Zubietako Herri Batzarra.** Usurbilgo Udalarekin eta Zubietako Herri Batzarrarekin aldi berean behin bilerak egitea, auzoko hainbat proiektu partekatzeko eta bi udalek sinatutako lankidetzan hitzarmenaren jarraipena egiteko.
  - **Igeldoko tokiko entitate txikia.** Udala Igeldo auzoaren deszentralizazio administratibora modu eraginkorragoan, hurbilagoan eta parte-hartzaileagoan hurbiltzeko dinamikarekin jarraituko dugu, indarrean dagoen Foru Arauan aurreikusitako prozesuaren abiapuntura iristeko, betiere deszentralizazio prozesuak planteatzen dituen erronkak eta edukiak hobeto ezagututa.
  - **Ekialdeko barrutiaren batzarra.** Herritarrei bideratutako informazio fluxuak eraginkorragoak izan daitezten lan egiten jarraituko dugu. Era berean, egutegi partekatu bat prestatuko dugu Udalaren eta barrutiko batzarraren artean, eragiten dieten proiektuen informazio eta egitaritza aldiak koordinatzeko.
  
- **Aurrekontu parte-hartzaileak.** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 79. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, herritarrek banaka zein taldeka parte har dezakete udal aurrekontuen proiektuan. Gaur egun, 2023rako onartu ziren proiektuak gauzatu ari dira (1.500.000 € guztira), baina 2024an eta 2025ean gauzatu diren proiektuen aurkezpen eta hautaketa prozesua ere.
  
- **PH-GUNEA proiektua,** Donostian herritarren parte-hartzea hobetzeko. Bi helburu ditu: batetik, administrazioak herritarrekin dituen harreman parte-hartzaileak hobetzea; eta, bestetik, elkartearen sarea, herritartasun aktiboa eta garapen komunitarioa indartzea. Honako estrategia hauek erabiliko dira horretarako:
  - Herritarren parte-hartzea hobetuko duten **sare, ekimen edo ikerketekiko konexioa:** Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako partaidetzarako foro teknikoa eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako Bherria proiektua.
  - **Lurraldean indartzea,** Herri Partaidetza Zerbitzuaren eginkizuna eta posizionamendua berrikusiz, eta aldaketak sortzen lagunduko duten formulak diseinatuz.

- Aurreko estrategiak indartuko dituzten eta elkarte sareari laguntzeko eta parte-hartze aktiboa sustatzeko bideak eskainiko dituzten **ekintzak ezartzea**.
- **Adinekoei Gizarte Zerbitzuen Sistemara sarbidea erraztea.**
  - Azken 5 urteetan zerbitzuekin harremanetan jarri ez diren eta zaugarritasun egoeran dauden adinekoen % 100ekin harremanetan jartzea.
  - Auzoz auzo, gizarte zerbitzuetako zentroek oraindik ezagutzen ez dituzten adinekoen egoera hobeto ezagutzeko neurriak ezartzea. Prebentziozko etxeko bisitak egitea eta horien jarraipena kudeatzea, aurrez aurre nahiz telefonoz.
  - Isolatuta dauden pertsonen kasuak detektatzeko proiektu esperimentalak sustatzea.
- **Pixkanaka, Gizarte Zerbitzuen Sistemara sarbidea errazten duten neurriak ezarriko ditugu kaleko egoeran dauden pertsonentzat.**
  - Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuaren (GLUZ) lehenengo elkarrizketa 7 lanegun baino lehen izan dadila bermatzea.
  - Koordinatzailearen eta teknikariaren arteko lankidetzeta, aurreikusitako epea betetzen ez dela ikusiz gero, hitzordua bermatzeko.
- **Giza baliabideak arreta helburuetara egokitzea:**
  - Teknikariek eta administrariak artatutako pertsonen kopurua murriztea eta Gizarte Harrerako Udal Zentroko (GHUZ) langileen ratioa ezartzea.
  - Plantilla handitzeko egon daitezkeen beharrak aztertzea.
- **Gizarte zerbitzuetako zentroak arretaren helburuetara egokitzea:**
  - Intxaurrendoko gizarte zerbitzuetako zentroa lekuz aldatzea. Balizko ordezkoko kokapenak aztertzea.
  - Alde Zaharreko/Erdialdeko gizarte zerbitzuetako zentroa egokitzeko lanak egitea. Alde Zaharra/Erdialde Zerbitzugunera sartzeko atea ordezte (Foru Aldundiak emandako baimena) eta igogailua jartzea.
  - Gros/Egiako gizarte-zerbitzuetako zentroa handitzea.
  - Antiguako gizarte zerbitzuetako zentroa handitzea. Oinarrizko Ikerketa Txostena egitea (2024rako aurreikusitako jarduketara).
  - Loiolako Erriberetako gizarte zerbitzuetako zentroa handitzea. Obrak egitea.
  - Hiriko hirigintza garapenerako eremu berrietan zentro berriak sortzeko aukera aztertzea.
- **Etorkinen kolektiboen asoziazionismoa eta herritarren parte-hartzea sustatzea.**

- Udal sail guztietan etorkinen kolektiboetara hurbiltzeko prozedurak ezartzea (zeharkako ikuspegiarekin), horiek ordezkatzen dituzten erlijio erakundeen edo erakunde komunitarioen bitartez.
- Etorkin taldeen artean herritarren partaidetzaren kultura zabaltzea eta sustatzea, haien eskubideak eta betebeharrak hobeto ezagutu ditzaten eta norbanakoen eta taldeen interesak defenda ditzaten, eta hirian hobeto gizartera daitezen.



## **6. DONOSTIA, EUSKARAZ NATURAL TASUNEZ GERO ETA PERTSONA GEHIAGO BIZI DIREN PERTSONEN HIRIA**

## EUSKARAREN HIRIA

*Euskara eta euskaraz mintzatzen den kultura Donostiaren aberastasun bat dira. Bere ezaugarriengatik, Donostia euskararen hiria da, euskara hiri egiten den esparru herritarra.*

*2021ean egindako VII. Inkesta Soziolinguistikoko datuen arabera, Donostia da Euskal Herri osoko hiririk euskaldunena. Biztanleen % 46,7 euskaldunak dira, 83.866 pertsona, alegia. Zifra horiek ia % 75era iristen dira (lautik bat) 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen artean. Gainera, euskararen erabilera gainerako euskal hiriburuetan baino zabalduago dago familian eta gizartean. Balio hori ezin dugu alde batera utzi, oso esanguratsua baita euskara bezalako hizkuntza gutxitu bat normalizatzeko, sendotzeko eta haren bilakaera dinamikorako.*

*Esparru horretan, udal politikaren eginkizunak dira aberastasun eta ondare kolektibo hori garatzea eta sustatzea, eremu desberdinetan euskararen normalizazio prozesua babestea, euskararen erabilera sustatzea eta euskarazko kultura eskaintza sustatzea. Gaur egungo erronkak euskararen berreskurapenean aurrera egitea eta hark gizartean duen prestigioa hobetzea du helburu, baita euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea ere, norbere aberastasunerako bitarteko gisa, kohesiorako eta integrazio sozial eta kulturalerako tresna izateaz gain.*

*Hirian gertatu diren aldaketa handiak direla eta, orain arte jarraitu diren planteamenduak egokitzea edo doitzea gomendatzen da. Immigrazioaren fenomenoak gure hiria bereizgarri egin duten gizarte egiturak aldatzen dituen gertakaria da bere horretan.*

*Komunikabideek gure gizartean duten pisu handiaren eta funtsezko eginkizunaren jakitun izanik, gobernuaren jarduketaren baitan lehentasuna emango diegu komunikabideetan eta sare sozialetan euskara sustatzeko neurriei. Bestalde, kirolak eta kulturak gure hirian duten protagonismoa kontuan hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko politikak bi sektore horiei emango die lehentasuna.*

*Donostiak euskararen nazioarteko erreferentzia izateko baldintzak betetzen ditu. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Etxepare Institutuaren (Tabakalerako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan du egoitza) eta hiriko unibertsitateen eskutik, horrek Europa mailan arlo horretan erreferentzia izateko aukera estrategikoa eskaintzen digu.*

## EUSKARAREN BELAUNALDIEN ARTEKO TRANSMISIOA ETA ERABILERA KOMUNITARIOA SUSTATZEA

- **Euskararen Hiria.** Hiri inguruneetarako hizkuntza politika berritzaileak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzen jarraitzea, eta gainerako euskal hiriburuetarako erreferente izatea.
- **Azken fasean, 2020-2024 Euskara Plan Orokorra ebaluatu** eta bost urteko plan berri bat diseinatu eta abian jartzea.
- **Harrera linguistikorako protokolo bat prestatzea**, gure hirira etorri eta beren bizilekua bertan finkatzea erabakitzen duten pertsonen euskararen balioak azaltzeko eta transmititzeko, bizilagunekin komunikatzeko eta bizikidetzarako hizkuntza gisa.
- **Euskara Donostian bizi diren eta lan egiten duten etorkinentzat.** Euskara Zuzendaritzatik, Euskaltegiekin eta Hizkuntzen Irakaskuntza Zentroekin lankidetzan, etorkinek euskara nola ikasten duten monitorizatzea eta, lortutako datuak abiapuntutzat hartuta, harreman komunitarioko eta euskaraz benetan jarduteko dinamikak sortzea.
- **Kultura etxeek euskararen erabilera gizartean normalizatzeko orduan egiten duten ekarpena.** Harreman komunitarioko dinamikak sortzea, euskararen jardun solidariorako komunikazio espazioak eskaintzeko, *Korrika* eta *Euskaraldia* gisako ekimenek sor ditzaketan aukeren esparruan (aurrerantzean bi urtez behin egingo dira).
- **Euskara administrazioa herritarrekin harremanetan jartzeko prozesuetan.** Udal administrazioako lanpostuetan lan egiten hasten diren pertsonen harrera egiteko protokoloa, pixkanaka euskara normalizatuz joan dadin pertsonen arteko harremanetarako eta lanerako hizkuntza gisa, eta gero eta ohikoagoa izan dadin herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza gisa.
- **Euskararen belaunaldi arteko transmisioa.** Euskara Zerbitzutik, euskara belaunaldi batetik bestera transmititzeko dinamika berritzaileak aztertzea proposatzen dugu.
- **Eguneroko harremanetan euskararen ezagutzak eta erabilerak duen garrantziari buruzko sentsibilizazio ekintzak garatzea.** Haurren eta gazteen arteko harremanetan euskararen erabilera azpimarratzea, bereziki eskolaz kanpoko jardueren, kirolean eta aisialdian.

## ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

- **Euskara ikasteko doakotasuna.** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (EuskaraLab) eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HABE) lankidetzan, euskalduntzera bideratutako baliabideak behar bezala banatuko ditugu, gaur egungo finantzaketa sistema hobetzeko eta herritarren artean euskararen ikaskuntza errazteko helburuarekin.
- **Barra Barra ekimena.** Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako administrazio publikoek bultzatutako ekimen bateratu honetan, Euskara Zuzendaritzak tokiko merkataritzan eta ostalaritzan euskararen ahozko erabilera babestea eta sustatzea.

- **Idatzizko eta soinu-zko gida bat egitea haur jaioberriak dituzten familia unitateentzat.** HABErekin elkarlanean, gida hori Kultura eta Euskara zinegotziak bidaltzen dien ongietorri gutunean sartzeko.
- **Lankidetzaren Etxepare Institutuarekin.** Etxepare Euskal Institutuarekin batera, joan eta etorriko nazioarteko proposamen kulturalak garatzea; proposamen horiek euskal kultura erakutsi beharko dute kanpoan, eta, aldi berean, Donostiako erakunde eta programazio kulturek nazioarteko euren homologoekin duten harremana sendotu eta kulturaren ezagutza eta trukea sustatu beharko dute.

## **PAISAIA LINGUISTIKOA, BISUALA, SOINUDUNA ETA SENTIMENTALA**


- **Euskara udal administrazioan.** Udal administrazioaren ikus-entzunezko seinale eta komunikaziorako baliabide guztien erabilera optimizatuko dugu, herritarrek euskararekin harreman atsegina, naturala eta eraginkorra izan dezaten.
- **Udal administrazioak herritarrekin izaten dituen ohiko harremanetan euskararen erabilera optimizatzen jarraitzea.** Herritarrek udal administrazioarekin dituzten harreman telematikoetan berme hori % 100era zabaltzea.
- **Hizkuntza paisaia.** Hiriko hizkuntza paisaiari dagokionez hiri seinaleak aztertzea eta definitzea eta horiek digitalki hedatzea, euskarak hiriko egunerokotasunean duen presentzia didaktikoa, eskuragarria eta eraginkorra ezartzeko.
- **Euskara eta kultura, aisia eta kirol eskaintza.** Kulturaren, gazteentzako aisialdiaren eta kirol praktikaren munduko erreferente euskaldunak identifikatzea hezkuntzaren esparruan gaitasun linguistikoa bereganatzen ari diren belaunaldi berrientzat, haur nahiz gazteentzat. Euskarazko kirol eskaintza zainduko dugu, eta euskararen erabilera normalizatua kirol entrenamenduen esparruan txertatzeko ekimenekin jarraituko dugu.
- **Donostia Kulturak euskarazko kultura eskaintza indartzen jarraitzea.** Euskararen presentzia modu naturalean txertatu nahi dugu hiriko ekitaldi eta jaialdi handietan.
- Bizilagunen arteko eguneroko bizikidetzan **euskararen ezagutzaren eta erabileraren balio positiboak zabaltzeko kanpainak** egitea, errealitate soziolinguistikoa eta auzo bakoitzeko bizikidetzaren sozialeko berezitasunak kontuan hartuta.





**DON♥STIA**

# DONOSTIAK AURRERA EGITEKO PROPOSAMENAK. PROPUESTAS PARA EL FUTURO DE DONOSTIA.



- 1 Mirramon Parke Teknologikoa Ilumbereantz zabaltzea. Ampliación del Parque Tecnológico de Mirramon hacia Ilunbe.
- 2 Gipuzkoako Industrialede berria. Nuevo polo industrial de Gipuzkoa.
- 3 Superkomputazio kuantikoaaren eraldaketa. Polo de supercomputación cuántica.
- 4 DIPren egoitza berria. Nueva sede del DIP.
- 5 San Bartolomeko Talent House berria. Nuevo Talent House en San Bartolome.
- 6 BCC eretiko berria Grosen. Nuevo edificio BCC en Gros.
- 7 Hiriko libildia Heizearen Orraztik Chillida Lekuraino. Itinerario urbano desde el Heme del Viento a Chillida Leku.
- 8 Esther Ferrenen Inak. Tabakalerako plaza berria ezartzea du. La obra de Esther Ferrer completará la nueva plaza de Tabakalera.
- 9 Liburutegi Nagusiak instalazioak berria. Renovación de instalaciones en la Biblioteca Central.
- 10 Kontadoreak, kultur ekimen berriak. Contadores, nuevos iniciativas culturales.
- 11 Ilunbe: erabilera onerako pobleri biltzarra. Ilunbe: transformación en población multusos.
- 12 Gabeam Zibilaren errealina. Hiriko berreskuraztea. Edificio Gobierno Civil, recuperación para la ciudad.
- 13 Erdiko berria Francisco Escudero Kontseho Oroitorako. Nuevo edificio para el Conservatorio Francisco Escudero.
- 14 Anoeta Kirol Hiriko instalazioak berria. Renovación de las instalaciones de la Ciudad Deportiva Anoeta.
- 15 Auzo barria Laloiala Kuarelesten, erdigune berria. Nuevo barrio en Cuareles de Laloia, nueva centralidad.
- 16 Urumea ardatza: ibada berreskuraztea hirirako. Eje Urumea: recuperación del río para la ciudad.
- 17 Seguresen esku-hartze ordiraketonika, berreskuraztea. Intervención arquitectónica en Segures para su recuperación.
- 18 Artzain Onaren plaza oinezkoentzat jarzea. Oinezkoentzako ordetz nagusia. Pedonalización de la plaza del Buen Pastor. Eje central peatonal.
- 19 Tabakalera, parka berria esa elkargunea. Tabakalera, nuevo parque y punto de encuentro.
- 20 Easoko trenbidetaren eremua: itatune berria esa berdegunea. Ploya de Vías de Easo: uno espacio de unión y giro verde.
- 21 GI-20ko itatune berria Maritxupin. Nuevo enlace de la GI-20 en Maritxupin.
- 22 Laloia - Inxaurrondo - Herrera, 2 km-ko bizikleta-tunel berria. Laloia - Inxaurrondo - Herrera, nuevo túnel ciclista de 2km.
- 23 Bideberdeak, oinezkoentzako libildiek berdeguneak lotzea. Bideberdeak, itinerarios peatonales para conectar áreas verdes.
- 24 Dozi II. fasea: 23 geltokial berri eta 257 bizikleta elektriko gehiago. Dozi II fase II: 23 estaciones nuevas y 257 bicicletas eléctricas más.
- 25 Anoeta eta Morlans arteko topograen lineaeko zoratok murriztea. Reducción de los nudos de la línea del topo entre Anoeta y Morlans.
- 26 Igelidoko Toki Erditate Txikia erretzako parte-hartze prozesua. Proceso participativo para construir la Entidad Local Menor de Igelido.
- 27 Kontseho berria Ekdeldiko Berrietan, segurtasuna indartzeko. Nuevo subcomisario en el Distrito Easo para reforzar la seguridad.